




ataria

**Kultur kontsumo eta
hizkuntza ohiturak**

2019-06-28
1.083. zenbakia
107.6 fm ·
www.ataria.eus



ANOETA - Iturtxulo 1

3 logelako etxebizitzak
210.000€ tik hasita

Kale Berria 46, behea
20150 Villabona

607 445 484
943 69 02 97

www.aburuza.com
komertziala@aburuza.com

Homosexualitatea Iranen

Ez daukagu homosexualik Iranen, guk ez dugu horrelako fenomenorik, ez dakit nork esan dizuen badugula». Mahmud Ahmadineyad Irango presidente ohiak, 2007. urtean, New Yorkeko Columbiako Unibertsitatean emandako hitzaldian.

Armanek eguzkitako betaurrekoak jantzi zituen argazkian, bere nortasuna babesteko. Nahiz eta gure proiektuan parte hartu nahi izan, eta bere istorioa kontatu, ikararuta zegoela somatu nuen. Lasaitu zedin, kafe batera gonbidatu nuen, Teherango Artisten Parkean dagoen jatetxe txiki polit batean.

«Maite dut nire herria, bertan bizitzen jarraitu nahi dut, baina, onartu beharra daukat, gobernuak zenbait gauza aldatu beharko lituzkeela. Homosexual bezala zeharo nekatuta nago ezkutuan bizitzeaz, ezin aske izateaz. Hala ere, zortedun sentitzen naiz nire familiak naizen bezala onartzen naudelako; nire lagunek ez dute zorte hori, eta oso gogorra egiten zaie. Moralaren poliziak botere handia du, eta beti erne ibili beharrean gaude».

Iranen homosexualitatea heriotzarekin zigortua izan daiteke, zenbait kasutan. Pertsona batekin sexu harremanak izan dituela ziurtatzen bada, zenbait testigantza direla medio, herriko pla-

zan urka dezakete. Egoera larri honen aurrean, nirekin hitz egin zuten gazteen ausardia ulertezina egiten zait askotan. Amir eta Ayda ziren, elkarriketatzeko zerrendan nituen hurrengo bi gazteak. Eurekin joan nintzen LGTBI festa pribatu ezkutu batera.

«Alkoholak erosi dugu festarako, merkatu beltzean; ilegala denez, leihoan txandatuz joango gara, polizia gerturatzen den ala ez ikusteko. Askotan igarotzen dira kale honetatik, eta denok kartzelan amaituko genuke harrapatuz gero». Amir zen ingelesez zekien gutxietariko bat; Aydak, ordea, hitz bat bera ere ez zuen egiten.

«Ni gay naiz, Ayda lesbiana, gure familiariek ez dakite ezer; oso erlijiosoak direnez, ez daukagu adorerik esateko. Zain gaude, ea Trump presidenteak zer edo zer egiten duen gure gobernuaren aurka, egoera jasan-

nezina bihurtu baita guretzat. Ez dakizu ze zortea duzun zuk, zure jaioterrian aske bizi zarelako; begira gu, beti ezkutuan».

Musika jarri eta guztiak dantzan hasi zirenean, Amir, Ayda eta ni gela ilun batean sartu ginen argazkietara. Amirrek, Armanen antzera, bere nortasuna babesteko bixera eta antifaz bat jarri zituen; Aydak, ordea, aurpegia eman nahi izan zuen, nahiz eta nik behin eta berriz esan, agian hobe litzatekeela zapiarekin estaltzea.

Goizeko ordubatean amaitu zen festa, baina ez beraien eguneroko borroka. Lehengo urteko urrian ezagutu nituen, gaur hainbeste maite ditudan lagun irandarrak. Aurten, egoera okerrera joan dela ikusita, berriro bueltatuko naiz haiengana. Zain izango ditut, irribarre batekin aireportuan.



URA ITURRALDE
ARGAZKILARIA

Iranen homosexualitatea heriotzarekin zigortua izan daiteke, zenbait kasutan (...) zenbait testigantza direla medio, herriko plazan urka ditzakete

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **KOORDINATZAILEA:** Rebeka Calvo Gonzalez
KUDEATZAILEA: Iban Urdapilleta Alkizalete **TELEFONOA:** 943 655695 **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46 **WEBGUNEAK:** www.ataria.eus
POSTA ELEKTRONIKOA: ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 · 687 4100 33 · 107.6 FM **PUBLIZITATEA:** 661678818 · publi@ataria.eus

ATARIK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA, SM-KO KIDEAK:



Tolosaldeko gizarte eragileak



berria



URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

TOLOSALDEKO ATARIA DIRUZ LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK:

Udalak: Albizsketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil



Gipuzkoako Foru Aldundia



Azaleko irudia:
Asier Imaz

Amarotz, ezohiko artisten erakusleihoa

Asteartean hasi, eta uztailaren 11ra bitarte, egitarau zabala prestatu dute Amarotzeko 21. Antzerki Astea jaialdirako

Josu Artutxa

Duela bi hamarkada pasatxo, auzoan bertan, solasaldi baten bueltan antzerki zaleak ziren 4-5 bizilagun bildu ziren. Hasiera batean, auzoko jaietan antzerkiaren bueltan zer-bait egitea zen asmoa. «Handik aste-betera, 4-5 obra genituen mahai gainean», oroitzen du May Gorostiaga, Intujai taldeko kideak eta Amarotzeko Antzerki Astea antolatzaileak. Horrela sortu zen lehen jaialdia. «Orduan, eskualdeko tailerrekin eta jende amateurrarekin osatzen genuen». Urte batzuk igarota, baina, talde propioa sortu zuten auzoan.

Antzerki astea, aberasten joan da, kanpoko artistak ekartzearekin batera. Gainera, auzoko festen parte bihurtzera ere igaro da. «Tolosan ohikoak diren bi aretoak oso urruti geratzen dira, eta askotan auzoak alde batera uzten dira. Intujai taldetik ezohiko artistei lekua egin eta ateak zabaltzen dizkiegu». Antzerki asteak duen arrakasta, ahoz aho zabaltzen joan dela nabari dute. «Azken urteetan mezu ugari jaso ditugu kanpoko taldeenak, eta askori ezezkoa esan behar izan diegu. Gehienek artistak ondo zaintzen ditugula nabarmentzen dute». Horrez gain, euskarazko saioek pisu handiagoa hartu dutela azpimarratzen du. «Hasiera hartatik hona, areagotu egin da euskal artisten indarra».

Aurtengorako, era guztietako saioak antolatu dituzte. Auzoko haur taldearen antzezlanarekin hasiko dira, ostegunean. «Oso sortzaileak dira, eta ideia bikainak izaten dituzte. Publiko-arekin jolastea izango dute helburu». Egun berean, emakumei buruzko bakarrikzeta komikoa izango da, Alazne Etxeberría aktorearen eskutik. Asteazkenean, berriz, euskarazko bi saio izango dira; tartean, Berrobiko Txalo-Talo taldea izango da. Ostegunean, ohiko pintxo poteari kultur ukitua

emango die, magiaz, musikaz eta umorez betetako saioan. Auzoko festen asteburuan, berriz, zirkua izango da protagonista. Azkenik, bigarren astean, Sahara ardatz izango duten bi saio izango dira. Une honetan, Auzo etxea obretan dagoenez, Amarotz jateko lehen solairuan kokatuko den aretoan izango dira barruko saioak.

21. ANTZERKI ASTEA

UZTAILAK 2, ASTEARTEA

17:30. *Kluedo Amarotzen eta sagutxo batzuk*, Pailaztana Junior taldearen eskutik, Amarotz jateko lehen solairuko aretoan (euskaraz).

22:00. *Mujer blanca soltera busca* bakarrikzeta, Alazne Etxeberría eskutik, Amarotz jateko lehen solairuko aretoan (gaztelaraz).

UZTAILAK 3, ASTEAZKENA

17:30. *Osaba untxia eta osaba Koloteren abenturak*, Ostomila txotxongilo taldearen eskutik (euskarazko kale ikuskizuna).

22:00. *Konplizeak* antzezlan Berrobiko Txalo-Talo taldearen eskutik, Amarotz jateko lehen solairuko aretoan (gaztelaraz).

UZTAILAK 4, OSTEGUNA

17:30. *Ardi Latxa oihanean galdu zenekoa*, Martxanilak taldearen eskutik (euskarazko kale ikuskizuna).

19:30. *Pintxopoteatro*, kale ikuskizuna, auzoko tabernetan zehar.

UZTAILAK 5, OSTIRALA

18:30. *El Hombre Rueda*, Profesor Karoli artistaren eskutik (gaztelarazko kale ikuskizuna).

UZTAILAK 7, IGANDEA

13:00. *Circo a medias*, Zaragozako Edu Manazas malabaristaren eskutik (gaztelarazko kale ikuskizuna).

UZTAILAK 11, OSTEGUNA

17:30. *Saharako ipuinak*, Dorleta Kortazarren eskutik, Amarotz jateko lehen solairuko aretoan (euskaraz).

22:00. *Sahara, gazte borrokariak: hitz eta begirada zintzoak* hitzaldia, lau emakume sahararren eskutik, Amarotz jateko lehen solairuko aretoan (euskaraz).

LGTBIQ+ren Nazioarteko Eguna dela eta, hamaika ekitaldi Tolosan

Udalak ikur ezberdinekin atonduko ditu herriko txokoak. Erakusketa bat eta antzezlan bat ere izango dira ikusgai.

Josu Artutxa

1969ko ekainaren 28an, Stonewall tabernako gertakariak izandako eguna, historikotzat hartzen du lesbiana, gay, transexual, intersexual eta queer-en askapen mugimenduak. Gau hartan, sexu- eta genero- desberdineko jendea isolaturik egoteari utzi eta sistemari aurre egiteko elkartu zen, beren burua erakutsi, beren eskaerak agerian jarri eta haiek diskriminatzen zituen sistema baten bidegabekeria- ren aurka borrokatzeko.

Beste urte batez, LGTBIQ+ pertso- nek jasaten duten diskriminazioa gaitzetsi nahi du Tolosako Udalak, eta ber- rriz berretsi nahi du sexu-orientazio eta genero identitatearen ondoriozko aurreiritzien aurka duen borrokatzeko konpromisoa.

Hori dela eta, eskubide hori aldarri- katzeko, hainbat jarduera antolatuko dira herrian. Jarduera horiez gain, San Joan festak hasi zirenetik, Zerkausia ortzadarraren koloreekin argizatuta ageri da, eta horrela iraungo du igan- dea bitarte. Bestetik, gaur egun osoan zehar, udaletxeko balkoitik zintzilik jarriko dira LGTBIQ+ bandera eta Hi- ruki arrosa.

Herritarrei begira, baina, aldarrika- pen keinu horiez gain, kultur ekintze- kin osatu du egitaraua udalak. Batetik, Ura Iturralde ateratako argazkiekin osatutako erakusketa zabaldu berri du Gernikako Arbolan, irailaren 6ra bitar- te. *Iran ezkutua* du izena eta herrialde horretako LGTBI komunitateko kide diren gazte batzuen bizitza gogorra erakusten du. Bestetik, uztailaren 4an, *Dúo de improvisación* antzezlan ikus- teko aukera izango da, Euskal Herria Plazan, 19:00etan, Kankaneo Teatroa- ren eskutik.



Hitzarmen probintziala adostea nahi dute

Asteazkenean hasi zuten greba grafikagintza sektoreko langileek. Borrokan segiko dute, adostasunera heldu arte.

J. Artutxa

Laugarren greba eguna zuten, atzo, papergintza sektoreko langileek, eta bigarrena, berriz, grafikagintza sektorekoek. ELA, LAB eta CCOO sindikatuek deituta eta bi sektoreetako langileak bateratuta, manifestazioa egin zuten, atzo eguerdian, Trianguloa plazatik abiatuta.

«Lehen egunean bezala, borrokan jarraitzen dugu», aldarrikatu zuten. «Produkzioa guztiz geldirik dago, eta langileria izugarritzko babesa ematen ari da. Argi dago beraz, guk egiten dugula hitzarmen probintzialaren aldeko apustua, eta ez patronalak». Azken horiek lehen bezala jarraitzen dutela

salatu zuten, «harrokeriaz, zurrin, eta negoziatzeko inolako asmorik gabe».

Lanuztearen aurretik, greba egun bakoitzak enpresaren etorkizuna joan jarriko zuela azaldu zieten enpresatik. «Orain, ordea, badirudi baldintza horrek ez diela inolako minik egiten. Hori gezurra da. Enpresek euren azpijokoak martxan jarriko dituzte lasai eta kezkarik gabe daudela sinistarazteko. Baina, hori ez da horrela; arduratuta eta larrituta daude».

Enpresen artean uneoro hizketan jarraitzen dutela azpimarratzen dute, «interesak adostu gabe». Bestetik, negoziaketek iraun bitartean, langileek berdin jarraituko dutela nabarmendu zuten, «borrokan eta mobilizazioetan segiko dugu, enpresak adostasun batera heldu daitezen, Negoziazio Mahaian eser daitezen, eta benetako tesuinguruan eta egoeran behingoz jar daitezen. Ez digute ezer oparituko eta borroka eginez lortu beharko dugu».

30 urte betetzen dira, gaur, Tolosa eta Uztaritze anaitu zirela

Bi herrietako kultur taldeen eskutik, hainbat ekitaldi izango dira bihar. 13:00ean, harrera instituzionala izango da.

J. Artutxa

1989ko ekainaren 28an sinatu zen Tolosa eta Uztaritz herrien arteko senidetza agiria. 11 artikuluetan egituratua, bake eta adiskidetasunean oinarrituta, elkartasun-loturak sendotzea eta senidetasun-harremanak finkatzea ziren helburuak.

2016ko urrian hitzarmena egungo errealitatera egokitu zen, Euskal Herriko lurraldeen kohesioa eta lankidetzatza oinarri hartuz, biztanleen arteko harremanak sendotzeko asmoz. Gaur, beraz, 30 urte betetzen dira Tolosa eta Uztaritze herriak senidetu zirela. Urtemuga hori ospatzeko, hainbat ekimen antolatu dira biharko.

SENIDETZEAREN 30. URTEMUGA EKAINAK 29, LARUNBATA

11:30. Tolosako Udaberri eta Uztaritzekeo Izartxo dantza taldeen agurra, Plaza Zaharran. Ondoren, kalejira eta dantza emanaldia.

12:00. Tolosa Kantari eta Uztaritzen Kantuz taldeen kantu jira.

13:00. Ekitaldi instituzionala, Tolosako udaletxeko pleno aretoan.

14:00. Bazkaria Alondegia plazan.

05

 tolosaldeko
ataria

 ataria
irratia

 ataria
internet

 ataria
prentsa

Zure iragarkia argitaratzeko:
661 67 88 18
publi@ataria.eus



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Saihesbidea eskatu dute

Zizurkilgo Biala orain! taldeak herriko trafiko arazoa konpontzeko eskatu dio Gipuzkoako Foru Aldundiari

Erredakzioa

Zizurkilen dozenaka herritar kale-
ra irten ziren herenegun, saihe-
sbide bat eskatzeko. Bulandegi eta Er-
nio bidetik, egunero, 10.000tik gora
ibilgailu pasatzen dira, eta horrek ku-
tsadura eta osasun arazoak sortzen
dizkietela salatu zuten bizilagunek.
Manifestazioarekin Gipuzkoako Foru
Aldundiari mezu garbia helarazi nahi
zioten, «behin betiko erabaki bat»
hartu dezala. «Foru aldundiak urte
mordoa darama gaia aztertzen, eta
behin betiko erabaki bat hartzeko es-
katzen diogu, arazo hau konpontzeko
benetako beharra baitauekagu», esan
zuten bizilagunek. Mobilizazioa Bia-
la orain! taldeak deitu zuen, eta herri-
tarren babesa jasotzeaz gain, Iker
Urruzola Zizurkilgo alkate berria eta
udal gobernua osatzen duten alderdi
politiko guztiak izan ziren bertan. Eta
hori dela eta antolatzaileek eskerrak
eman zizkieten, «oraingoan ere eu-
ren atxikimendua eman digutelako
eta espero dugu legealdi berrian ere
elkarlanean jarraitzea».

Manifestazioa bukatuta Gipuzkoa-
ko Foru Aldundia larritasunaren jaki-
tun dela azaldu zuten manifestariak,



Biala orain! herritar taldeak deituta, manifestazioa egin zuten, herenegun, Zizurkilen. ASIER IMAZ

«eta badaki saihesbidea behar be-
harrezkoa dela gure herriarentzat,
horregatik eskatzen diogu lehenta-
suna ematea gai honi eta saihesbi-
dea egiteko konpromiso formala
hartzea. Hori lortu arte lanean ja-
rraituko dugu».

Izugarrizko eragozpenak

Elbarrena erdigunetik egunero
10.000 ibilgailu inguru pasatzen
direla salatu zuten, eta horrek egu-
nerokotasunean izugarritzko era-
gozpenak sortzen dizkietela nabar-
mendu nahi izan zuten. «Gainera,
legediak ezarritako soinu mugak
gainditzeaz gain, kutsadura eta
osasun arazoak ekar ditzake», gai-
neratu zuten.

2018. urteko sinadura bilketa

Zizurkilgo trafiko arazoa ez da berria,
Biala orain! taldeak salatu izan due-
nez, 29 urtez luzatu da gaia. «Geure
kabuz bildu ditugun datuen arabera,
Gipuzkoako Foru Aldundia 1990. ur-
tean gaia aztertzen hasi zela egiazta-
tu dugu».

Era berean, iaz 350 sinadura baino
gehiago bildu zituzten saihesbidea
eskatuz. Foru aldundiak abuztuan
Bulandegi eta Ernio bideko errepide-
ko zorua berritzeko asmoa du, eta
hori dela eta kexa azaldu dute: «Era-
berritze lan horiek ez dute arazoa
konpontzen, errepidea ibilgailu astu-
nak pasatzeko prestatzen dute beste
urte batzuetarako, beraz, arazoa fin-
katu besterik ez dute egingo».

Hilberriak eta urteurrenak



**Javier Goenaga
Uriarte**

- Goian Bego -



Amarotzen txikitatik
arrantza zenuen maitatzen
zurekin asteburutan
mendira honttoak biltzen
Jakako arrain saltoak
ez zaizkigu ez ahazten
Mendigorriko eperrak
ta gilgeroak ikusten

Maritxu, Agurtzane, Orkatz, Aitziber, Bidatz, Mattin, Itzea.

TOLOSAN, 2019ko ekainaren 28an



**Javier Goenaga
Uriarte**

- Goian Bego -



Begiak itxi eta zu ikusten zaitugu
Gure bihotzeko txokoan
Gu goxatzen
Maite zaitugu aitona Jabier

Bidatz, Mattin, Itzea.

TOLOSAN, 2019ko ekainaren 28an

Harrotasunaren Egunarekin egin dute bat

Lurgatz talde feministak ortzadar koloreko murala egin du LGTBI + Harrotasunaren Nazioarteko Egunaren harira.

Erredakzioa Amasa-Villabona

Gaurkoa LGTBI+ Harrotasunaren Nazioarteko Eguna da eta Amasa-Villabonako Lurgatz talde feministak Donostiako TransMarikaBollo Koordinadora Feministak antolatu duen manifestaziora joateko dei egin du. Manifestazioa *Harrotasuna ez dago salgai*, *Donostia ere ez!* lelopean abiatuko da 19:00etan Bulebarretik. Egunaren harira gainera, Amasa-Villabonan hainbat herritarren artean, ortzadar koloreko murala egin dute.

LGTBI+ mugimenduak urteetan lanean aritu eta garaipen handiak lortu dituela aitortu du Amasa-Villabonako Lurgatz talde feministak, baina azken urteetan hainbat instituzioek irudi «ireki eta tolerantea» emateko, «gizarte eredu baztertzaila, elitista eta kapitalista bat» bultzatzen ari direla uste du. Amasa-Villabonako feministek horregatik egin dute bat *Harrotasuna ez dago salgai!* leloarekin. «Instituzioek orokorrean kolektiboek babesteko eskatzen dituzten baliabideak bultzatu beharrean, askotan egiten zaizkien proposamenak baztertu egiten dituzte eta beraien mesedetara, zurikeriekin marjinazio sozialera bideratzen dituzte kolektiboak», esan du Lurgatz talde feministak.



Herritarrek Amasa-Villabonan egindako muralaren irudia. JON MIRANDA

Jaietako haur bazkarirako izen ematea, zabalik

Alegia. Karmen jaien azken aurreko egunean, uztailaren 15ean, umeen bazkaria egingo dute. Uztailaren 5a izango da izena emateko azken eguna eta interesatuek kultur etxera joan beharko dute. Menuan markarroiak, oilaskoa eta izozkia izango dira, eta aurten bazkaria doakoa izango da. Izena ematerakoan jasoko da txartela.

Egitarraren azaleko irudia egiteko aukera

Amezketeta. Udalak jakinarazi duenez, aurtengo jaietako egitarauaren azaleko irudia herritar batek egin izatea nahi dute. Hori dela eta, lehiaketa bat antolatu dute. Bi aukera jarri dituzte: marrazki bat egitea edo argazki bat aurkeztea. Irabazleak, bere lan sarituaren irudia eta izena egitarauaren azalean agertzeaz gain, bi lagunentzako afaria izango du sari modura. Uztailak 20 da lanak aurkezteko azken eguna.

Josu Artola ikustera joateko autobusa antolatu dute

Amezketeta. Uztailaren 7an Gorderxola Xtreme 2019 proba egingo da Bizkaiko herrian, eta parte hartzaileetako bat izango da Josu Artola amezketarra. Hori dela eta, autobusa antolatu dute animatzera joateko. Autobusa Beartzana jatetxe ondoko aparkalekutik aterako da, 07:30ean. 10 euro ordaindu behar dira, eta izena udaletxean behar da uztailak 4ko 10:00ak bitarte.

07

Hilberriak eta urteurrenak

ataria jarrita
Goierriko eta Urola Kostako
Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenerik asteazkenara 18:30ak arte hartzen ditugu
Ostegunetan 16:00ak arte hartzen ditugu



Bixente Saizar Ugartemendia

VIII. urteurrena

Simona Azpiroz Nazabal

I. urteurrena



*Gure ondotik joan zineten baina
zuen oroimenak bizirik dirau gurekin betiko.*

ETXEKOAK

URTEURREN MEZA DATORREN IGANDEAN, EKAINAK 30, EGUERDIKO 12:15ETAN IZANGO DA BERAATEGIKO TOURSEKO SAN MARTIN ELIZAN. ALDEZ AURRETIK MILA ESKER.

BERASTEGI, 2019ko ekainaren 28an.



Garazi Zabaleta, Aitor Lanás eta Ekaitz Goikoetxea, dokumentalaren egileak. HIKIRU

‘Trans-formatzen’ ikusteko aukera, gaur

Transexualitateari buruzko dokumentala eskainiko dute gaur, 18:30ean, Ikaztegietan, udaletxe azpiko aretoan

Irati Saizar Artola

Gaur, LGTBQ+ Lesbiana, Gay, Bisexual eta Transexualen Harrota-sunaren Nazioarteko Eguna dela eta, Hikiru taldeak ekoiztutako *Trans-formatzen* dokumentala ikusteko aukera izango da Ikaztegietan, udaletxe azpiko aretoan. 18:30ean izango da emanaldia, eta ondoren, Ekaitz Goikoetxea zuzendaria eta Naizen elkarte Ederne Belamendia gurasoa izango dira bertan, bere semearen bizipenak kontatzen eta guraso bezala nola bizi-tu duen azaltzen.

Ekaitz Goikoetxea eta Garazi Zabaleta beasaindarrek eta Aitor Lanás iruindarrak egindako lan horrek tran-

sexualitatearen errealitatera gerturatzeko aukera eskaintzen du. Generoa, identitate sexuala, aniztasuna edo askatasuna bezalako gaiak jorratu dituzte trans begiradatik. «Herri mailako ekimenetan aurkeztu eta ikastetxeetan gaia lantzeko helburuarekin» ekoiztu dute filma.

40 minutu irauten ditu dokumentalak eta testigantza ugari jaso dituzte, egoera ezberdinak gertuagotik ezagutu ahal izateko. Batzuk lehen pertsonan kontatu dituzte bizipenak, baina badira gaien adituak direnen ahotsak ere. Besteak beste, honako kide hauek parte hartzen dute: Mikele Grandek eta bere gurasoek, Chrysalliseko Aingeru Mayorrek eta Edurne Kochekek, Susana Asiain antropologoak, Erika Salvatierra sexologoak, Marijo eta Maddi Imazek, German Urteagak, Maria Amolategik eta Kai Etxanizek hartu dute parte.

Ibarrako kultur etxea udako ordutegiarekin hasi da

Ibarrako Kultur etxeko ordutegia aldatu egin da, uda dela eta. Astelehenerik ostiralera, 9:30etik 14:00etara zabalduko dute. Asteazkenetan, ordea, arratsalde ere irekita izango da, 16:00etatik 18:00etara bitarte. Abuztua itxita egongo da eta aipatutako ordutegi hori irailaren 6a bitarte mantenduko da.

Berastegiko liburutegiaren ordutegia aldatu egin da

Uztaila osoan, Berastegiko liburutegia goizez egongo da zabalik, 10:00etatik 13:00etara. Uztailaren 25, 26 eta 31an ez da irekiko eta abuztuaren 5etik 23ra, hiru astez, itxita egongo da. Abuztuko azken astea ere, 26tik 30era, goizez soilik irekiko dute, eta irailaren 2tik aurrera betiko ordutegiarekin hasiko dira.

Urtekaria aurkeztuko dute uztailaren 5ean Altzon

‘Altzo 2018’ urtekaria aurkezteaz gain, Maite Larburu kantautorearen kontzertua izango dute afalostean

Erredakzioa

Urtebeteen herri batean jasotako albiste, argazki, istorio eta kontuak bildu dituzte beste urte batez Altzon. Hurrengo ostiralean, uztailaren 5ean, erakutsiko dute herritarren aurrean; 19:30ean izango da *Altzo 2018* urtekariaren aurkezpen ekitaldia udaletxe ekintza aretoan.

Egun berean, afalosterako, ordea, beste ekitaldi bat antolatu du Altzoko Udalak: Maite Larburu biolin jotzaile eta kantautoreak emanaldia eskainiko du 22:00etan, Batzarremuñon. Sarre-ra 5 euro kostatzen da eta momentuan bertan ordaindu beharko da, aretora sartzerakoan.

Maite Larburu hernaniarra Neighbor taldearekin egin zen ezagun, duela sei urte inguru. Azken boladan, ordea, bakarkako ibilbideari ekitea erabaki du, eta Neighborren hirugarren diskoan pentsatuz sortutako abestiak bakarkako bere lehen diskorako erabiltzea erabaki du. Horrela osatu du *Hezurren azpian* bere lehen bakarkako diskoa. Biolinaz gain, gitarra elektrikoa, gitarra klasikoa eta xilofoia ere jo ditu diskoan. Bere estilo propioan, hitzek sortzen duten melodian eta biolina lagun, euskara hutsean egindako abestiak kantatuko ditu Altzoko Belarmuñoko aretoan.

Hurrengo ostiralean Luis Erasori bisita egingo diote

Berastegiko Udalak antolatuta, Luis Eraso herritarrak motozerrarekin egin dituen artelanak bisitatzeraterra egingo dute, hurrengo ostiralean. Bere pabiloira joateko, 17:00etan jarri dute hitzordua aparkaleku berrian, Sutegiren parekoan. Artelanak ikusteaz gain, zalantzak argitzen lagunduko du Erasok berak.

Artola eta Altuna III.a elkarren arteko finaletik gertu

Altuna III.ak Ezkurdia izango du aurkari ostiralean, eta Artolak Bakaikoarekin neurtu beharko ditu indarrak, larunbatean

Erredakzioa

Erabaki dira enpresako adarreko finalak nortzuk jokatuko dituzten, eta eskualdeko bi pilotari daude lau eta erdiko San Fermin Txapelketako finala jokatzeke ateetan: Jokin Altuna eta Iñaki Artola.

Altuna III.ak mendean hartu zuen Peio Etxeberria, 22-10 irabaziz. Hori horrela, Ezkurdiaaren aurka jokatu beharko du Aspeko finala, ostiralean, Sopelan, 21:15etan hasitako jaialdian.

Artolak, berriz, Bakaikoaren aurka jokatu du Baikoko finala, larunbatean, Barañaingo pilotalekuan, 18:00etatik aurrera. Alegiarrak 11-22 irabazi zion Bengoetxea VI.ari pasa den asteburuan jokatutako finalaurrekoan.

Bi partidetan irabazten duten pilotariek aurrez aurre aritu beharko dute uztailaren 7an, Iruñeko Labrit pilotalekuan jokatu den lau eta erdiko San Fermin txapelketako finalean. Aukerak badira, beraz, eskualdeko bi pilotari San Ferminetuen elkarren aurka final bat jokatzen ikusteko.

Finalerako bidean geratu dena Erik Jaka lizartzarra izan da. Ezkurdiaaren aurka jokatu zuen finalerdia eta ezin izan zuen bere mailarik onena erakutsi. Hutsegite batzuk tarteko, 22-17 galdu zuen.

Aburuza Kaldereria Pala Txapelketa hastear da

Ostiralean jokatuko dira Aburuza Kaldereria Pala Txapelketako lehen partidak Adunan. Alebinen txanda izango da lehenik, 18:00etan hasita. Bi partiden ondoren infantil mailako hiru partida jokatuko dira. Guztira 12 bikotek hartuko dute parte, eta abuztuaren 2an jokatuko dira finalaurrekoak, bi kategoriatan.



Gutierrez, Alberdi eta Espinalentzat txapela

San Joan Txapelketaren finalak igandean jokatu ziren Tolosako Beotibar pilotalekuan: Alberdi zizurkildarrak irabazi zuen

Erredakzioa

Igandean jokatu ziren San Joan Txapelketako finalak, lau eta erdian. Hiru partidak ikusgarriak izan ziren eta pilotazaleak ederki gozatu zuen Beotibarren.

Jubeniletan Gutierrezek 22-13 irabazi zion De La Fuenteri. Errioxarra indartsu sartu zen finalean, 11-4 aurreratu. Nafarraren jokoa eta kalitatea esnatu zen orduan, eta finala iraultzeko puntuatzen izan zen, 15-13 gerturatu. Hortik aurrera zortea eta tantoak

Gutierrezen alde izan ziren, zuzenean 22ra iritsiz.

Etorkizun mailako partidaren Julen Alberdi zizurkildarrak 22-13 irabazi zion Arribillagari. Finalik argiena izan zen joko aldetik. Alberdi maisu dabil eta igandean hori ikusi zen.

Nagusien mailako finala ikusgarria izan zen: markagailuan eta jokoan. 22-21 irabazi zuen Espinalak, baina hori gutxienezkoa izan zen pilotazaleentzat. Bi finalistek ikuskizun handia eskaini zuten. Partida amaierako txalo zaparradak hori islatu zuen. Markagailuan jauzi handiak eman zituen lehian zehar. Adibidez, Zubizarreta 14-10 jarri zen aurretik, ondoren, 21-15 galtzera pasatzeko. Hortik 21nako berdinketa, eta Espinalen garaipena etorri ziren.

Udako pilota ikastaroak eskainiko ditu Intxurrek

Intxurre pilota eskolak udako pilota ikastaroak antolatu ditu Alegian lehenengo mailatik hasi eta seigarren maila bitarte inguruko ikasleentzat. Atzo izan zen lehen saioa eta uztailaren 4, 11, 18 eta 25ean izango dira dotozenak, 18:30etik 19:30era. Gorka Altuna eta Beñat Urretabizkaia dira irakasleak.

Gaur hasiko da IX. Pilota Txapelketa, Alegian

Gaur jokatuko dira festetako pilota txapelketako lehen partidak, 21:00etatik aurrera. Hasiera emateko pala partidak jokatu dituzte neskek. Lehen partidaren, Garmendia eta Mendizabal Galdos eta Huitziren aurka ariko dira, eta bigarrenaren Iraustabarrena eta Erasunek Larrarte eta Maiza izango dituzte aurkari.



Emaitza bikainak eskualdeko itsas zeharkaldiko igerilariek

Erika Amundarainek Getxoko Kirol Portuko proba irabazi du; Ioseba Mateos 14. izan da Batalla de Rande proban

Imanol Garcia Landa

Emaitza bikainak lortzen ari dira denboraldi honetan itsas zeharkaldietan lehiatzen ari diren eskualdeko igerilariak. Batetik, Erika Amundarain billabonatarrek Getxoko kirol portuko V. zeharkaldia irabazi du aurreko asteburuan. Bestetik, Ioseba Mateos ibartarrak Galiziako uretan egindako Batalla de Rande zeharkaldi gogorrean 14. postua lortu du sailkapen tradizionalean.

Lehenengo aldia izan da Amundarainek Getxoko proban parte hartu duela eta irabaztea lortu du. «Badakizu aukerak izan ditzakezun aurreko postuetan egoteko, baina ez duzu inoiz espero irabaztea», esan du Amundarainek. 29.19ko denbora egin zuen billabonatarrek.

Antolatzaileek murriztu egin zuten zeharkaldiaren distantzia, 3.000 metrotik 2.300 metroan utziz. «Niretzako beraz okerrago da motzagoa izatea, ni berez mila metrotik aurrera erabaki ez duten sentitzen naizelako», esan du billabonatarrek. Proba hasterakoan indarra zuela ikusi zuen eta indartsu ekin zion. Bakarrik geratu zen eta proba guztia horrela egin zuen. «Niri, berez, taldean joatea gustatzen zait, baina esperientzia berri bat izan zen, eta oso gustura lortutako emaitzarekin». Denboraldiarekin «pozik» dagoela dio Amundarainek, Kantabrian bigarren, Mundakan hirugarren eta Getxon lehen postua lortu eta gero. Asteburu honetan Lekeitioko itsas zeharkaldian parte hartuko du.

Ioseba Mateosek lehen parte hartzea izan du Batalla de Rande itsas zeharkaldian, aurtan zortzigarren aldiz egin dena, eta estatuan dagoen bosgarren proba gogorrena. Cies irletatik



Erika Amundarain Getxoko proban lehen emakumezkoa izan zen, Haigor Arangurenekin batera.



Ioseba Mateos igerian Batalla de Rande proban. FARO DE VIGO

San Simon irlaraino da ibilbidea. «Galizian egiten da eta ekainean ura hotza egoten da. Bestetik, 27 kilometroko ibilbidea du», esan du Mateosek, probaren gogortasuna azaltzeko. Ehun partaide ingurutik 14k utzi egin zuten, horietatik 12 hipotermiarengatik. Sailkapen orokorrean 18. postuan ageri da, eta zeharkaldi tradizionalean 14. postuan amaitu zuen gizonezkoen sailkapenean. 6.58.22ko denbora egin du ibartarrak, eta «oso pozik» agertu da egindako markarekin: «Zazpi eta zortzi ordu bitartean bukatzeko asmoz

joan nintzen probara, eta espero baino denbora gutxiagoan egin nuen».

Hiru igerilari modu librean ateratzen. Beste guztiek, Mateos tartean, 12 kilometroa arte kontrolpean igeri egin zuten, erritmo jakin batzuen arabera egindako taldeetan. «Zortzigarren kilometrotik aurrera erabaki nuen Alex Zabala igerilari zarautzarrarekin igeri egitea, eskarmentu handikoa, eta gero, hamabitik aurrera nire erritmo taldetik tiratzen aritu nintzen». Bukera «dena emanda» joan zen, eta gustura geratu da egindakoarekin.

Europarako txartelak Altzon erabakiko dira

Erredakzioa Altzo

Almitza elkarteak antolatzen duen 2019ko Sega Ligaren hirugarren eta azken saioa egingo da bihar, larunbata, Altzon. Etxeberri-Azpiko belardian egingo da eta 18:00etan hasiko da. Ligako txapeldunak jakiteaz gain, Europako Sega Txapelketarako txartelak zeinentzat diren ezagutuko da.

Europara begira hamabost heldu joango dira, horietatik 10 gizonetzkoak eta bost emakumezkoak. Gizonetzkoetan 30 urtetik gorakoak gehienez hiru izango dira, eta emakumezkoetan bakarra. Azken neurri hau Europako Txapelketako antolatzaileek hartutakoa da segalari gazteen parte hartzea indartzeko. Gaztetxoan mailatik, 2005ean edo ondoren jaiotakoak, bi mutil eta neska bat joango dira. Gizonetzko helduek 10x10 metroko saila ebaki behar dute eta beste guztiek 5x7 metrokoa. Azkarren mozten duenak lortzen ditu puntu gehien, baina txukuntasuna ere kontuan hartzen da, eta horren arabera denbora gehitu daiteke parte hartzaileari.

SAILKAPENA

EMAKUMEZKOAK

Alaitz Imaz	120p
Ainara Otamendi	117p
Maider Garmendia	116p
Angels Breto	111p
Luixa Uzkudun	111p
Graxi Elozegi	110p
Sheila Sarasola	108p
Susana Lopez	107p
Jugatx Agirre	107p
Garazi Urkiola	101p
Irati Astandoa	58p
Ainhua Mazkieran	50p

GIZONEZKOAK

Bixente Mitxelena	118p
Jexux Mari Goenaga	117p
Migel Mari Jauregi	115p
Julen Gabirondo	113p
Koldo Arzellus	111p
Jon Otegi	111p
Mikel Lizartza	109p



Eskualdetik ondoko segalariak ari dira parte hartzen ligan: Jugatx Agirre berastegierra, Ainara Otamendi ibartarra, Alaitz Imaz hernaldearra, Luixa Uzkudun leaburuarra, Amets Otegi gazteluarra, Sheyla Sarasola lizartarra, Izadi Arrospide leaburuarra, Mikel Lizartza tolosarra, Joakin Garmendia anoetarra, Koldo Arzellus tolosarra, Arkaitz Gabirondo gazteluarra, Amaur Arrospide leaburuarra eta Iñigo Etxabe belauntzarra.

Pabi Astondoa	105p
Joxe Atin	104p
Mikel Alkorta	104p
Suharri Irazustabarrena	103p
Joakin Garmendia	98p
Amaur Arrospide	96p

NESKAK

Izadi Arrospide	120p
June Mikeo	118p

MUTILAK

Josu Mendizabal	119p
Jokin Mikeo	117p
Arkaitz Gabirondo	117p
Iñigo Etxabe	115p

Auritz Alkorta	120p
Oier Mitxelena	118p
Mattin Etxarri	116p
Xabi Beamont	114p
Oier Tejeria	56p

GUTUNAK

Javier Goenaga gogoan

Oriako Txirrindulari Eskolako Zuzendaritza Batzordeak Javier Goenagaren heriotza deitoratu nahi du, gure txirrindularitza eskolako lehendakari ohia eta laguntzailea. Txirrindularitza-proba batean boluntario lanak egiten ari zela gertaturiko zoritxarreko istripu baten ondorioz zendua.

Une zail eta gogor hauetan familiari dolumina erakutsi nahi diogu.

Bestalde, bere bizi guztian zehar Tolosaldean txirrindularitzaren alde egindako lan guztia baloratu eta eskertu nahi dugu. Javier bezalako pertsoneri esker, makina bat txirrindulari proba antolatu ahal izan dira, adin guztietako milaka kirolarien parte hartzea ahalbidertuz.

Javierrek erakutsitako moduan, Oriako Txirrindulari Eskolan lanean jarraituko dugu txirrindularitza sustatzuz.

**Oriako Txirrindulari Eskolako
Zuzendaritza Batzordea**

Euskal Herriko alebin eta infantil igerilari onenak, Tolosan

Erredakzioa Tolosa

Euskal Herriko alebin eta infantil mailako igeriketa txapelketa jokatuko da hiru egunez, gaur hasi eta igandera bitarte, Tolosako Usabal kiroldegiko igerilekuan. Lehen aldiz jokatuko dira bi mailetako txapelketak batera, eta 500 neska-mutil inguru elkartuko dira hiru egunetan. Tolosaldea IKT taldetik maila bakoitzean hamar neska-mutil inguruk parte hartuko dute. Hiru egunetan goizeko saioa 10:00etan hasiko da eta 13:00ak inguru arte iraungo du. Ondoren, arratsaldeko saioa 17:00etan hasiko da eta 19:00ak inguru arte iraungo du. Aisiarako, beraz, kanpoko igerilekua bakkarrik egongo da erabilgarri hiru egun hauetan.

Nola egin oporretarako botikina

Askotan ez diogu garrantzirik ematen, baina, oporretara joaten garenerako, ezinbestekoa da oinarrizko botikin bat prestatzea. Baina, zer sartu beharko genuke oporretako botikin horretan? Nezaser txiki batekin nahikoa izango da, betiere, ustekaberen bat gerta daitekeela pentsatuz.

Lehenik eta behin, oinarrizko tratamenduekin gogoratuko gara; alegia, urte osoan hartu behar izaten diren medikamenduekin. Adibidez, norbait asmatikoa baldin bada, eta oporretara joan behar baldin badu, bi inhalagailu hartzea komeni da. Nik beti gomendatzen diet bat ganean eramatea, eta bestea maletatxoan; lekuaren arabera, medikua eta larrialdi zerbitzuak eskura izango ditugu, baina, zenbait tokitan zailtasun handiagoak izango ditugu botika lortzeko.

Era berean, gaixotasun kroniko bat dela eta botikaren bat hartu ohi dutenentzat, ez da gaizki etortzen papertxo batean honako datuak apuntatuta eramatea: medikazioaren izena, posologia eta medikuaren izena. Izan ere, batzuetan, aduanetan zailtasunak jartzen dituzte, eta horrek balioko luke gure medikamentuak gureak direla argudiatzeko; gure medikuari errezeta elektronikoa inprimatzeko eskatzea besterik ez da egin behar.

Beste gomendio bat izan daiteke, medikamendu horiek beren berezko ontzietan eramatea. Medikamentuaren izena garbi agertzea garrantzitsua da, ez dezaten pentsa droga edo bestelako sustantziaren bat dela. Badaezpada ere, pilulak solte eramatea ez da komeni.

Zauriak sendatzekoak

Beti gertatzen dira erorikoak, eta sortzen zauri txikiak eta antzekoak. Kasu

horietan, lehenengo eginbeharra zauri horiek garbitzea izaten da, eta horretarako nahikoak dira ur korrontea eta xaboia, herrestatzez sar daitezkeen germenak-eta garbitzeko.

Behin zauria garbituta, ondo legoke desinfektatzaile bat eta gazak eramatea; paketetxo bat edo bi. Desinfektatzailea izan daiteke iodoa duena, nahiz klorexidina edo kristalmina deitzen dioguna.

Azkenik, zauria estaltzeko aposituraren bat beharko dugu: tiritaren bat. Guraize txiki batzuk botikinean sartzea ere erosoak litzateke, aposituak edo gazak moztu behar direnerako.

Gogora ekarri behar da, zauriek 24-48 orduz estalita egon behar dutela, zarakarra egiten zaaien arte; gero libre utz ditzakegu, betiere, zauria garbi mantentzen baldin badugu.

Ibiltarientzat

Oinetakoeekin urradurak sortzen dira askotan, eta ez dago gauza desatseginagorik, mendi ibilaldi baten erdian baba bat ateratzea baino.

Horrelakoetarako, nik bigarren azal moduan geratzen diren adabakitxo batzuk gomendatzen ditut. Urradura hori sailhesten dutenez, nik sartuko nituzke botikinean, batez ere, ibiltariak baldin bagara.

Eta, horiekin batera, pintza batzuk ere hartzea komeni da; aurpegiko ileak kentzeko horietako bat-edo. Oso ondo etortzen dira arantzatzko bat edo hondartzako hezurtxo bat sartzen dugunerako. Areago, akainak ateratzeko ere oso baliagarriak dira, mendizaleentzat eta.

Sabela mugitzen denerako

Bidaia exotikoetan, batez ere, oso ohi-koak izaten dira beherakoak, ohikoak ez zaizkigun jakiak kontsumitzeaga-

tik, edo kalean nola-halako baldintza higienikoetan prestatutako jakiak jategatik.

Badakigu, beherakoen oinarrizko tratamendua dieta egitea eta ondo hidratatzea dela. Ondo hidratatzeko badaude ahotik hartzeko suerozko sobretxo batzuk; horiekin edariak presta ditzakegu, beherakoarekin galtzen ditugun elementu horiek guztiak –so-

Ondo tolestutako kamiseta baten lekua har diezaguke botikinak maletan, eta hainbat estuasunetatik irteteko lagungarria da

dioa, potasioa,... – berreskuratzeko. Horrenbestez, gure gorputza berriro hidratatzeko, sobre pare bat sartu beharko genituzke botikinean.

Dena den, argi izan behar dugu hauek ez dutela beherakoa moztzen. Beherakoarekin gaudenean, hestee-tan jariakin bat izaten da, eta hanturak sortzen ditu. Horrek deshidrataziora garamatza, eta berau da beherakoaren arazo nagusia. Bide horretan, nahiz eta ura hidratatzaile ona izan, baditu zenbait arazo: ez digu laguntzen galdutako gatzak errekuperatzen.

Jende askok galdetzen du, ea zer moduzkoak diren beherakoa moztzen duten produktu horiek –adibidez, Fortasec-. Badaezpada ere sar ditzakegu botikinean, baina ez da komeni erabat horiek baliatzea. Zergatik? Ez dutelako beherakoa sendatzen. Beherako gehienak birikoak izaten dira, orduan, hestearen mugikortasuna handitzen da, eta hesteak ur gehiago galtzen du. Gisa horretako farmakoek hestea geldiaraztea lortzen dute, hainbeste likido galdu ez dezan.

Aldi berean, ordea, birusa hestee-tan atxikitzen dute horrelako botikek. Horregatik, salbuespen metodo moduan balio dute; esaterako, autobusean 8 orduko bidaia bat egin behar baldin badugu, ondo datoz.



**AITZIBER
ALZAGA**
FAMILIA MEDIKUA





Bila joan gabe, etortzen denari tokia egitea

Eskualdeko 16 eta 18 urte bitarteko gazteen kultur kontsumo ohiturei buruzko ikerketa gauzatu berri du Galtzaundi Euskara Taldeak.

Josu Artutxa Dorronsoro

Kultur mailako gaiak aintzat hartuta ekin zion, Galtzaundik, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan ikasten duten gazteek gai honen inguruan, eta eskualdeko testuinguruan kokatuta, dituzten kezkek eta jokabideak aztertzeari. Musika dela, informatzeko gaitasuna dela, ikus-entzunezkoak kontsumitzeko joera dela edota eskualdeko kultur ekimenen eskaintzaren inguruko ezagutza dela, galdetegiak, dinamika tailerrak eta hitzaldiak egin dituzte eskualdeko ikasleek.

Imanol Artola *felix* Galtzaundiko kidearen esanetan, «bi ondorio nagusi ateratu ditugu ikasketxeetan gauzatutako lantegietatik: batetik, gazteek etortzen den hori kontsumitzeko joera dutela, zerbaiten bila joan beharra ikusi gabe; bestetik, etengabe mugikorra erabiltzeko joera hartu dutela, eta hori dela kontsumo ohituretarako duten gailua». Zerbaiten bila joan, edo etortzen den hori buruz informatzeko garaian, bi bide jarraitzen dituztela dio. «Bilatzerako orduan, sarera jotzen dute gehienek. Denbora pasarako eta zer eginik ez dutenerako, berriz, telebistak protagonis-

mo handiagoa hartzen du. Egoerari ikuspegi zabalago batetik begiratuta, duela hamar edo hamabost bat urteko egoera berean aurkitzen dira».

Orokorrean, okupatuta bizi dira gazteak, edo sentsazio hori dute behintzat. Asteazken zehar ez dira lagunekin biltzen, ikasketak edota eskolaz kanpoko jarduerak direla eta. Etxean daudenean, telebista edo websailak ikusteko ohitura handia dute; tarteka, musika entzutekoa ere bai. Asteburua, berriz, lagunekin egoteko eta plan ezberdinak egiteko aprobetxatzen dute.

Benetako lagunaren falta sumatzen dutenean, baina, lagun birtualen bila jotzen dute ia denek. Aspertzen diren aldiro, denbora pasa modura erabiltzen dituzte sare sozialak. Bideoa eta irudi artean «kateatuta» bizi direla diote. Horiek elkarbanatzeko mezuek, ordean, nekez izaten dituzte euskarazko esaldiak; oso mugatua da euskararen erabilera, eta traolero kasuan, adibidez, beste hizkuntza batetara jotzen dute. Horrelakoetan, ingurua eragitea baino, norberari interesatzen zaion hori jasotzea izaten da helburua.

Euskal musikak merezi duen tokia du?

Musika da, itxuraz, gehien kontsumitzen duten kultur eskaintza. Plataforma digitalaren aldekoak dira gehienak; musika doan entzuteko aukera izanda, horretara jotzen dute, erosi beharrik izan gabe. Musika talde berriak, berriz, lagunengandik jaramon eginda, sare sozialetan ikusita edota Spotify nahiz Youtube plataformetako arrakasten zerrendatik ezagutzen dituzte. Musikari baino, letrari ematen diote garrantzia batzuek, eta alderantziz ere gertatzen da.

Askok, gainera, lagunekin musika entzuteko joera dute, nahiz eta norberak entzuten duena eta kuadrillan entzundakoa berdina ez izan. Kontzertuei dagokionez, herriko festetako eta gaztetxeko eskaintzara jotzen dute gehienek. Lehenean, berbena taldeak nagusitzen dira; bigarrenetan, berriz, talde ezezagunak lehen aldiz ikusteko aukera baliatzen dute batzuek. Bestela, modaren arabera eta boladaka joaten dira taldeak entzutera; batzuetan, euskaldunak.

Euskal musikari dagokionez, orotarikoa iritziak dituzte: agresiboa dela, alai dela, lehen zuen kritikotasuna galdu duela..., nahiz eta lehen baino askotari-koagoa izan. Guztiek, ordea, pentsamen-du bera dute: estilo aldetik eskaintza are-agozteak falta da; euskarazko reggaetoia, baina, ez zaie naturala egiten. Gainera, euskal taldeen kantu solteak taldeak bai-ño gehiago ezagutzen dituztela diote.

Mundu globalizatu honetan, irratia-ki musika entzuterakoan eragin handia duela dio, eta alde horretatik, entzuten diren kateetan, euskal musikaren falta sumatzen dute; batez ere, talde ezagu-nen kantuak jartzen dituzte, besteei tarterik eman gabe. Hori-egaz gain, parrandako abestiak jartzen dituztela diote. «Horiek ezagutzen beharrezkoa da, parrandan taldetik kanpo ez gerta-zeko». Bestetik, 'euskal' etiketaren barruan dena sartuta dago-ela diote, eta ezin dela modu bariatuan entzun. Horiek arra-kasta lortzeko bi bide daudela diote: sarean duen eskaintza, to-kia eta zabalpena areagotzea, eta batez ere, ahoz aho hedatzea.

Interesatzen zaienaz soilik aberasten

Musikak, baina, testuinguru baten barruan kokatzen ditu gaz-teak, baina ez die inguruan gertatzen denaren berri ematen. Kulturaz aberasteko beste bideetako bat eskaintzen du mun-du mailan albiste den horri buruz jakiteak. Beraientzat interes-garria suertatu daitekeen horren inguruan informatzeko, oro-korrean, interes gutxi azaltzen dute gazteek. «Lagunen artean edo ikastetxean gai baten inguruan hitz egiten hastean, gustu-ra aritzen gara, baina ez gara gure kabuz horretan hasten». Ez dute albisteak jarraitzeko ohitura handirik. Ohitura dutenek, aldiz, gurasoengandik jaso dutela diote. «Eurek jartzen dute te-lebista edo irratia eta horrela oharitzen gara gertatzen den guz-tiaz. Gero, kalean ezin gara gaizki geratu eta apur bat jakitea be-harrezkoa da».

Bestalde, sarean aurkitzen dute arnasmunea. TOLOSALDEKO ATARIA-ren webgunea edota komunikabideen sare sozialak begiratzea erraza suertatzen zaie. Eskualdeko hedabidearen kasuan, «bertan gertatzen denari arreta handia» ematen dio-la eta erreferentziatzeko dela diote. Paperezko prentsari da-gokionez, gaztelaniaz kontsumitzeko joera dute askok, eta mutilen kasuan, kiroltako orriek erakargarritasun handia-go dute. «Euskarazko egunkariak soilik bertako kirol talde-ak jarraitzen dituzte, kanpokoen berri eman gabe».

Zeri buruzko albisteak jarraitzen dituzten edo zeren ingu-ruan informatzen diren galdetuta, politikaren kasuan, berta-koaren berri izatea baino, Espainiako egoeraz jabetzea erra-zagoa dela diote, «eskurago dagoelako, erabiltzen ditugun medioengatik». Informatuta bizi direla uste dute, baina ez dute interes gehiegi azaltzen. «Titularrak soilik irakurtzen ditut, eta ondoren, interesatuz gero, edo inguruko ezagun-baten ingurukoa bada, gehiago irakurtzen jarraitzen dut», aitortu zuen batek. Bestal-de, gai korapilatsuetan galtzen direnean, alde batera uzten dituztela ere aitortzen dute.

Bideoen bitartez irakurriz baino gehiago informatzen direla ere nabarmentzen dute, kiroltako laburpenak direla, Play-ground-eko bideoak direla edota azalpen bideoak direla. Bestetik, whatsapp taldeak ere erabiltzen dituzte informatu ahal izate-ko, baina ez dituzte fidagarritzat. Horietan, gainera, inguruko hedabideen berriak ere zabaltzen dituzte. Azkenik, komunikabi-deek manipulatzeko idazten dutela uste dute. «Badakite iritzia sortzeko nola ida-tzi».

Gaztelaniaz euskaraz baino gehiago irakurtzen dute; ikastetxean agindutako testuei ez diete lehentasunik ematen

Gazteek telebista gutxiago kontsumitzen dute; kate eta programa jakinen bila jotzen dute

Telebista gutxiago, youtuber gehiago

Kultur kontsumorako beste ohiko bide bat ikus-entzunez-koena da. Irakurtzea baino errazagoa zaio, edonori, bideo bat ikusi eta entzuten duen bitartean, kontatzen denaren berri izatea, begiak gehiegi nekatzeko esfortzurik egin gabe. Are gehiago, ikusten ari den hori entretenigarria de-nean. Hori dela eta, interneteko plataforma ezberdinek osatzen dute irudiaren eta soinuaren konbinazio perfek-tuaren jatorria. Batzuek, Youtube eta bertako tendentziak aukeratzen dituzte. Besteek, berriz, websailak edo filmak ikusteko ohitura dute ordaindu beharrik gabeko orrialdeetan. Azkenik, bada geroz eta handiagoa den fenomeno bat: gazteek telebista gutxiago kontsumitzen dute. Azken ho-rien kasuan, kate eta programa jakinen bila jotzen dute, ikustera ohitu diren eta gustuko duten horretara. Joera ho-riek, gainera, gurasoetan izan ohi dute jatorria. Zer ikusi, hura ikasi. Hala ere, badira kasuak non lagunengandik ahoz ahoko mezu trukaketekin zerbait ikusten hasi, eta gusta-tzeraino iritsi daitekeela bakarren bat.

Eta zein izan daiteke, ikus-entzunezko edukiak gutxi kontsumitzeko arrazoia? Bada, ia denak bat datoz hizkun-

tza kontua dela adieraztean. «Euskaraz ez dago eskaintza handiegirik, eta gaztelaniaz, berriz, ia dena egiten da». Eskualdean euskaraz ikus daitekeen kate nagusia da ETB 1. Euskal Telebistaren gaineko kritika gogorra egiten dute gazteek. «Lehen eskaintza hobea zenaren ustea dut. Orain, berriz, seriotasun falta bat nabaritzen dut». Horrez gain, beste kateetako programak kopiatu eta euskal komunitatera ekartzen saiatzen direla diote, baita umorezko saioak faltan botatzen dituztela ere. Tartean, baina, bada eskaintza kalitatezkoa dela eta lagundu egin behar dela uste dute: «Egiten duen ahalegina ere kritikatzeko dugu, besteez horrela hitz egiten ez denean, eta besteen lehiakide izan ezin duenean».

Filmak, doan eta etxean

Kultura kontsumitzeko ohituren artean, azken hamarkadetan jaitsiera handiena zinemagintzak izan duela esan daiteke; gazteen artean, betiere. Ez dute euren burua zinema zaletzat, eta tarteka joaten dira aretoetara filmak ikustera. «Etxean doan ikus dezakezunagatik ordaindu? Ez dut uste», diote. Herri guztietan saiatzen dira eskaintza areagotu eta publiko askotarikoarengana heltzen. Tolosan, esaterako, Leidor aretoak eskaintza zabala izaten du, eta eskuragarri jartzen diren bonuek arrakasta handia izaten dute. Gazteak, baina, gutxitan begiratzen dute bertako programa, eta ia inoiz ez dira jartzen horren bila. «Joaten garenetan, arrakasta duten filmak ikustera joaten gara. Hala ere, beti eztabaida bera izaten dugu. Estreinu bezain pronto Donostia inguruko aretoetara joan eta bertan ikustea, ala hona ekarri arte itxarotea.

Euskarazko pelikulen inguruan ere, iritzi kontrajarriak dituzte gazteek. «Badute arrakasta. Gainera, ezaugarri berezi bat dute: gertukoak dira, eta zeure egiten dituzu». Hala ere, euskaraz egindako lanak ikustera joaterakoan, tendentzia edo «postureo» moduko bat dagoela diote: «fama egin ondoren ikusten dituzte askok». Mahai gainean, beste gai bat dute: bikoizketak. Euskarara transkribatutako elkarrizketek, xarma galtzen dutela eta motelagoak direla nabarmentzen dute. Informazio galera, betiko ahotsak eta euskara artifiziala dira beste arazoak.

Gainerako kultur eskaintzak, azaletik

Zinemagintzarekin gertatu moduan, badira beste kultur eskaintza batzuk, gazteengan interes falta dutenak. Antzerkia da horietako bat. Gazteak apenas joaten dira obrak ikustera, «ez delako erakargarria», diote. «Ez gara eskaintzaz ohartzen, eta herri txikietan, gaztetxeak tarteko, fide-lagoak dira». Bertsolaritzaren kasuan, herriko saioak edo telebistakoak soilik interesatzen zaizkie. Orokorrean, urrunekoa zaie. Azkenik, literaturari dagokionez, gaztelaniaz euskaraz baino gehiago irakurtzen dute, «ezagutza handiagoa delako, gehiago idatzi delako, baita kalitate hobea duelako ere». Ikastetxean agindutako testuei ez diete lehen-tasunik ematen. Askori, traba ere bihurtzen zaie irakasleek eskatutakoa irakurtzea. «Sare sozialetan, jarri gabe pasatzen dugu denbora; irakurtzen, aldiz, ez; denbora librean irakurtzea ez da denbora aprobetxatzea».



ANE ELORDI ETA MAIDER LASTRA
LASKORAIN IKASTETXEA

«Tolosan haurrentzako eta helduentzako kultur ekintzen eskaintza handiagoa da, gazteentzako baina. Hutsune handi bat dago, eta ez zaigu galdetzen zer interesatzen zaigu»

«Egunerokotasunean ez dugu egunkaria irakurtzeko ohitura handirik, ez gara informazio bila joaten. ATARIA-ko albisteez, horien loturak WhatsApp- ez iristen zaizkigunean ohartzen gara»

«Ikastetxeetan, duela 15 urte argitaratutako eleberriak irakurtzera behartu ordez, egungo idazleak ezagutzeko aukera eman beharko ligukete irakasleek»

«Euskarazko telesailetan guk erabiltzen dugun hizkuntza sartuz gero, esaldien erdiak gaztelaraz izango lirake. Ezin zaie guk egiten ez duguna eskatu»

«Gaztea irratiak ez ditu bertako musika taldeak bultzatzen; baliteke jendeak aukeratutako zerrendengatik izatea. Lehen entzuten nuen; orain, ordea, Europa FM entzutea bezalakoa da»

«Askotan gertatzen den fenomeno da: etortzen zaigunarekin pasiboak gara, horrela erakutsi zaigulako, baina gero kexatzerako orduan oso aktiboak gara; gauza asko eskatzen ditugu»



IÑIGO GOIKOETXEA
ORIXE IKASTETXEA

«Orokorrean, gazteok ez dugu herriko kulturarekiko interesik azaltzen, eta ez dugu eskaera berezirik egiten. Alde horretatik, pasiboegia da gure jarrera»

«Eskolan egindako dinamika saioetan 28 Kanalari umorezko saio bat egitea falta zitzaiola zioten ikaskideek. Ez dut uste hori denik tokiko telebista kate batek izan beharko lukeen formatua»

«Interes falta handia dugu informatzeko orduan. Inpaktu handia duten gertaerez soilik jabetzen gara»

«Sorkuntza aldetik, euskaraz maila handia dago. Hala ere, euskarazko filmak mugatuak direla iruditzen zait, eta euskararen kalitatea ez zait gazteentzako egokiena iruditzen»

«Telebistan emandako tokiagatik edo txapelketak irabazteagatik entzun izan dut bertsolari bat edo beste. Bestela, ez dut bilaketa bat egiteko ohiturarik»

«Euskal kulturarekiko betebeharrak bat daukagu. Guk kontsumitu ezean, nork egingo du?»

«Euskal kultura tradizionalarekin lotzen da: trikitia, txalaparta, kantagintza... eboluzionatzen ere jakin du, ordea»



**ANE ANTJUSTEGIETXARTE
ETA MAIALEN NUÑEZ**
HERRIKIDE IKASTETXEA

«Ez dugu herriko kultur ekitaldien agenda begiratzeko ohiturarik. Ez zaigu iruditzen eskaintza oso zabala denik; kontzertuek soilik asetzen gaituzte»

«Lehen, etxean egunkari fisikoa izaten genuen. Orain, baina, joera handiagoa dut argazkiak ikusi eta titularrak irakurtzeko. Egun, hedabide ezberdinen webguneak bisitatzeko»

«Gaztelerazko programak eta filmak euskarazkoak baino gehiago ikusten ditugu. Gero, horrelakoak euskaraz egitea eskatzen dugu, baina jakitun gara hori lortzea oso zaila dela»

«Guk sortzaileen lana bilatzen ez badugu, ezinezkoa da beraiek ikusgarritasuna ematea. Aldi berean, ezin gara beraiekiko kritikoak izan»

«'Merli' telesailarekin egin duten saiakera izugarria izan da. 'Go!Azen' -eko euskara, berriz, nahiko urruna eta garbia da, indarrez sartutako esamoldeekin»

«Beharrezkoa dugu euskal kultura kontsumitzea. Inoiz ez dakizu nondik etorriko den gustuko duzun hori»

Nahiz eta gazte askok horrela ez ikusi, kultura gauza positiboa da»



Pasa den astean aurkeztu zuten, kultur etxean, Siadecok egindako ikerketa. Garikoitz Goikoetxeak eman zituen azalpenak. **JOSU ARTUTXA**

Euskaraz egiteko joera txikia

Tolosako Udalak ezagutzera eman ditu herriko guraso euskaldunen hizkuntza ohituren inguruko datuak. Ia bikote guztiek euskara ezagutzen dute, baina kaleko, laneko nahiz etxeko erabilera oso ezberdinak dira.

J. Artutxa Dorronsoro

Udalaren enkarguz, herriko guraso euskaldunen hizkuntza ohiturak aztertu ditu Siadeco elkarteak. Pasa den astean aurkeztu zituzten azterketaren emaitzak, kultur etxeko areto nagusian. Euskararen erabilerari ikuspegi zabaletik erreparatu diote diagnostikoa egiterako ordutan: ahozko erabilera, transmisioa, hedabideen kontsumo, kultura eta euskararen inguruko iritzia izan dituzte kontuan.

Hiru fasetan banatu dute ekimena. Batetik, haurrak LH eta DBH mailatan dituzten gurasoein inkesta bat egin da. Bestetik, gurasoein talde dinamikak egin dira, datu kualitatiboak eskuratzeko. Azkenik, adituen iritzia jaso dira, datu horiek kontrastatzeko. Kultur etxeko dinamikan, berri, ondorio batzuk ere atera zituzten.

Garikoitz Goikoetxea, Galtzaundi Euskara Taldeko kideak eta *Berria*-ko kazetariak aurkeztu zituen emaitzak, baita talde dinamiketan jasotako zenbait adierazpen ere. Tolosan, 2.568 ikasle dabilta LH eta DBH mailatan. Horieta 1.468k dituzte guraso euskaldunak, eta beraz, lagin hori hartu zen inkesta abiarazteko. Azkenik, baina, %51k erantzun du. Ondorioz, 547 izan dira baleko inkestak. Gainera, dinamiketarako, lau guraso taldetan banatu dira. Azkenik, txostena osatzeko, herriko egoeraren berri duten adituen iritzia jaso dute: Joseba Antxustegietxarte, Kike Amonarriz, Helena Baraibar, Xabier Bengoetxea, Silvia Mateo eta Imanol Artola.

Gunearen arabera, erabilera aldatzen da

Azken urteetako kalkuluen arabera, Tolosan 19.500 biztanle bizi direla estimatzen da. Euskal Herria mailan, adituek Tolosaldea dute euskara gehien arnasten den eskualdetzat. Tolosa, ordea, herri erdalduna dela diote, etorkinen gorakadaren ondorioz. Hezkuntzaren arabera, ordea, Tolosan ez dago neraberik euskaraz ez dakienik. Euskarak, ordea, herritar askoren lehen hizkuntza modura behar bada nabarmena izan du, nahiz eta etxeko erabileran gora egin duen (%39,9; gazteleraren erabilera, %38,6). Kaleko erabileran ere, goranzko joera izan du azken hamarkadetan, nahiz eta tartean geldialdi uneak izan.

Guraso euskaldunen artean, bikote guztiak kontuan izanda, %71koa da euskararen ezagutza. Bi hizkuntzetan aritzeko joerak gora egin du azken urteetan, eta horren erakusle dira faktore ezberdinak. Batetik, gurasoek duten erraztasuna izan behar da kontuan. Bestetik, aurrez izandako ohitura ezberdinak. Guraso horiek, gainera, ohitura izaten dute haurrekin hizkuntza bat eta bikotean beste bat erabiltzeko.

Umetatik oraingo egoerara, guraso euskaldunen euskararen erabilerak galera nabarmena izan du. Orain joera handiagoa dute bi hizkuntzetan aritzeko, bai etxean baita kuadrillan ere (azken honetan, %93,4koa da euskararen ezagutza). Koskortu ahala, erlazioa erdaldunagoa da. Hala ere, badira gurasoak, nerabezeroan euskara alboratu behar izan, eta orain berreskuratu dutenak, bestelako leku edo lagun-taldeak ezagutzen joan direlako. Lantokian, bestal-

de, euskararen erabilerak gora egiten du gehienek kasuan (%57), lankide gehienak euskaldunak direlako.

Aitareneko amaren ezagutzak, eragina

Arestian aipatu bezala, guraso euskaldun guztiek haur euskaldunak dituzte. Guztien umeek burutzen dituzte ikasketak D ereduan; hori baita Tolosako ikastetxeen egungo errealitatea. Etxean, ordea, haurrekin euskaraz egiteko joera ez da %100ekoa, hamar puntu txikiagoa bainik: %90. Guraso askok aitortzen dute haurrari euskaraz egitea arau modura dutela, nahiz eta euren artean ez egin. Umeekiko harremanetan erabiltzen da euskara gehien Tolosan. Ezagutzaren eta erabileraren arteko jauzirik txikiena hor dago. Gurasoen artean oso-oso hedatua dago haurrekin euskaraz jardutea, nahiz eta batzuk erdaraz aritu beste esparruetan.

Euskaraz egiteko gaitasunak, baina, moldaketak jasaten ditu, zahartzen joan ahala. Lehen aipatutako faktoreek eragin handia dute horretan. Gurasoen ezagutzak eta haurren erabilerak, transmisioaren eta generoaren ikuspegitik ere zeresan handia ematen du. Ama euskalduna duten umeak, euskaraz errazago aritzen dira. Aita euskalduna dutenak, berriz, erdaraz aritzeko joera handiagoa dute. Hala ere, transmititutako lehen hizkuntzari dagokionez, euskara nagusi da orokorrean. Horri lotuta doaz kultur kontsumo eta ohiturak. Gurasoek behin eta berriz egiten duten hori eredu izaten da haurrentzat, eta eragin nabarmenena telebistarena izaten da. Haurrek, askotan, gurasoek ikusten duten hori ikusten dutelako. Hala ere, marrazki bizidunen eragina oso handia dela diote datuek.

Telebista gazteleraz, irratia euskaraz

Guraso euskaldunek, ez dute berdin ikusten euskararen ahozko erabilera eta bestelakoa. Irakurtzea baino errazagoa zaie hitz egitea. Horri lotuta doaz, komunikabideen eta egunkarien kontsumo ohituen datuak. Eskualdeko hedabideak ezagutzen dituzte, baina oso gutxi kontsumitzen dituzte. Interneten, esaterako, euskarazko hedabideen kontsumoa %10ekoa da. «Eskaintza oso txikia da» diote. Bestela, papereko kontsumoa hain txikia izatearen arrazoiak, denbora gutxi izatea, erakargarritasuna eta kalitate eskasa direla nabarmentzen dute.

Kalitateari jarraiki, erabiltzen den euskarari ere erreparatzen diote batzuek. Izan ere, %10ak horren errua dela dio, ulergaitza dela argudiatuz. Irratiaren eta telebistaren kasuak, berriz, oso ezberdinak dira. Gurasoen %40ak, irratia beti euskaraz entzuten du. Telebista egunero euskaraz kontsumitzen dutenak ez dira %2ra ere iristen (%1,3). «ETB ez dut ikusten, ez duelako merezi. Pilota ez bazaizu gustatzen, jai daukazu», zioen guraso batek.

Irakurzaletasunarekin lotuta, liburuen kontsumoa oso

txikia da gurasoen artean. Musikari dagokionez, berriz, bietara entzuten dutela diote. Ikus-entzunezko edukiak, ordea, soilik gazteleraz kontsumitzen dituzte. Kultur kontsumoari lotuta, ohitura falta, eskaintzaren ezagutza falta, denbora eta saiakera falta dira horren arrazoi nagusiak.

Gurasoen pertzepzioa, errealitatearekin bat?

Diagnosticarekin amaitzeko, euskarari eta haren erabilerari buruz nolako iritzia duten galdetu zitzaizkien gurasoei. Batetik, euskaldunen portzentaiaz galdetu zen: Tolosan zenbat euskaldun daudela uste duten. Datu ofizialen arabera, 2 urtetik gorako tolosarren %71 dira euskaldunak (hori dio biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuaren estatistikak). Gehienek, hamarretik zazpik, zuzen erantzun dute. Euskaldun gehiago daudela uste dutenak oso gutxi dira (%4), baina kontuan hartzekoa da ia bostetik batek (%18) uste duela Tolosan euskaldun gutxiago dagoela.

Euskal Herriko herri gehienetan baino aukera handiagoa dago alde horretatik Tolosan. Euskaraz ulertzen dutenak (euskaldunak eta ia euskalduna batuta) %82 dira.

Erabilerari buruzko pertzepzioa aztertuta, horren arrazoietan sakondu nahi izan da. Zehazki, guraso euskaldunei galdetu zaie zergatik ez duten euskara gehiago erabiltzen. Inkestan, erantzun itxiak proposatu zaizkie motibo gisa. Bat nagusitzen da, alde handiarekin: besteek erdaraz egiten dietela. Lau guraso euskaldunetik batek hautatu du. Askoz atzerago daude gainerako motiboak, eta hiru nabarmendu dira: erosotasuna, euskaraz natural ez egitea, eta inguru erdalduna izatea. «Motibo horiek guztiak bi multzotan bana daitezke. Batetik, norberarekin lotuak: erosoago egitea erdaraz, ohitura eta borondate falta... Bestetik, inguruarekin lotuak: besteek erdaraz egitea, inguru euskalduna ez izatea...», aipatu zuen Goikoetxeak

Erdarara jotzeko joera horren oinarrian zer dagoen galdetuta, alde psikologikoa aipatu dute guraso ugari: eremu batzuetan euskaraz egitea edukazio txarreko zatik jo izan dela. Guraso batzuek azaldu dute hori pixkanaka aldatzen doala, belaunaldi aldaketarekin batera. Beste motibo bat ere nabarmendu dute: hautua, kontzientzia. Aita-ama asko ez dituzte kezkatuta ikusten euskararen aldeko hautua egitearekin. Euskaraldiaren eraginaz galdetuta, adibidez, gehienek ez dute aldaketarik nabaritu, eta lehengo joerara itzuli dira.

Erabileran pauso handiagoak emateko modua ikusten dute adituek. Gauza bera gertatu zen kultur etxeko aurkezpen saioan, eta bi ondorio nagusi ateratu zituzten berriratzutakoek. Batetik, elkarrizketa elebidunak izateko joera handitzea eta gaztelerara hain erraz igarotzeko ohitura ez izatea, eta bestetik, udal instituzio nahiz erakundeek sarean eskaintzen duten zerbitzuaren (webguneak kasu) lehen hizkuntza euskara izatea.

Egun, bi hizkuntzetan aritzeko joera handiagoa da, nahiz eta kuadrillako %93,4ak euskara ezagutu

BLUES DOINUEN MAGIAN

20

Sanjoanetako ajea oraindik kendu ezinik duenak, badu festarako berriro nahikoa aukera. Atzo hasi eta igandera bitarte, Tolosandblues jaialdia ari dira ospatzen Tolosan, hamabosgarrenez. Sei taldek osatzen dute aurtengo kartela, eta gaurtik igandera arte zazpi kontzertu eskainiko dituzte.



Olatz Peon Tolosako alkatea eta Iñigo Martin antolatzailea, jaialdiaren aurkezpen egunean. 1. SAIZAR

Irati Saizar Artola

San Joan Jaiei erreleboa konturatzerako iritsi da Tolosara. Atzo hasi zen Tolosand-blues jaialdiaren 15. edizioa, eta Euskal Herriko zein nazioarteko hainbat blues musikari ospetsu Tolosako kale eta txokotan dabilta, euren dohainak erakusten.

Sei talde eta zortzi kontzertu, lau egunetan. Aurtengo izarra Mitch Kashmar harmonika jotzaile estatubatuarra izango da, antolatzaileen arabera. Bi kontzertu eskainiko ditu, gainera, bidaia aprobetxatuz. Lehena bihar izango da, 22:30ean, Plaza Berrian, eta bigarrena igandean eskainiko du, 20:00etan, Txurrerian.

Noa Voll Damn & The Hell Drinkers taldeak eman zion hasiera Tolosand-blues jaialdiari, atzo iluntzean. Maria Luisa Agirre Doktoarearen plazako goxotasunak blues zale

mordoa bildu zuen Ainhoa Egiguren abeslari donostiarra-
ren doinu klasikoak entzutera.

Tolosaren kultur agendan, jaialdi hau erreferente bilakatu dela gogoan izan zuen Olatz Peon Tolosako alkateak jaialdiaren aurkezpenean: «Gure kultur eskaintzaren ikur bilakatu den jaialdi hau, egonkortzen doa urtez urte. Saiatzaren gara programazioa gorenaz izaten, eta horretarako, inplikazioa eta lanaz gain, baliabide gehiago jarri dira aurtengo jaialdiaren osaketarako».

2012an abiatutako formatua mantendu dute, aurtengo ere: Tolosako plaza ezberdinetan entzuteko aukera izan da eta izango da. Euskal Herria plaza, Lopez Mendizabal plaza edo Plaza Berritik hasi, eta Maria Luisa Agirre Doktoarearen plaza edota Ilargi, Saikin, Txurreria edo Solana tabernak bezalako gune txikiagoak hartuko ditu jaialdiak. «Oso interesgarria da espazio txiki eta handien artean lortu den oreka», esan zuen alkateak.

«ALDAKETA BAT BAINO GEHIAGO EBOLUZIO BAT EDUKI DU JAIALDIK, PROGRAMAZIOAREN ETA ENTZULEEN ALDETIK BEREZIKI»



IÑIGO MARTÍN ANTOLATZAILEA

Blues doinuak Tolosan entzuten diren hamabosgarrenaldia da aurtengoa, eta Iñigo Martín tolosarrak urte horiek guztiak daramatza antolatze lanetan.

Hamabost urte hauetan zertan aldatu da jaialdia?

Aldaketa baino gehiago eboluzio bat egon da, bai programazio aldetik eta baita entzuleen aldetik ere. Geroz eta jende gehiago animatzen da kontzertuetara eta erantzun hobea du gaur egun.

Lehen edizio hartan espero zenuten hamabosgarren bat ospatzera iritsiko zinetenik?

Ezta pentsatu ere. Are gutxiago kontuan hartuta lehen edizio haietan ze jende gutxi zetorren. Oraindik jaialdia finkatu gabe zegoen, eta jendeak ez zekien oso ondo zer zen musika mota hau. Gero, urteak pasa ahala, jendeak ezagutu egin du.

Urtez urte programazioaren maila ere igo egin da?

Hasieran publikoarentzat guztiz ezezagunak ziren taldeak ekartzen genituen, nahiz eta oso onak izan. Gero, aukera izan dugu ezagunagoak ekartzeko, eta jaialdiari izena eta prestigioa ematen dizkioten taldeak ekartzeko gai izan gara.

Nola egiten duzue taldeen aukeraketa?

Lehenik eta behin, jendearen gustukoak izan daitezkeen taldeak identifikatzen ditugu, eta ondoren, taldeak data horietan libre ote dauden begiratzen dugu.

Blues doinuaren barruan, estilo aldetik ere aukera zabalago dago?

Musika bera mundu bat da eta bluesak berak adar asko ditu. Aukeratzekoan saiatzen gara ahalik eta konpletoenak ekartzen.

Musikari ospetsu askok zapaldu dute Tolosa?

Bai, dudarik gabe. 2008an, adibidez, Little Charlie & The Nighthcats izan genituen. 2014an, Duke Robillard; 2016an, Shakura S'Aida eta askoz gehiago. Mundu mailan oso ezagunak diren taldeak izan ditugu. Hori guretzako luxu bat da.

Aurtengo zein nabarmenduko zenuke?

Dudarik gabe, Mitch Kashmar harmonika jotzaile estatubatuarra. Badira lau edo bost urte bere atzetik gabiltzala, eta azkenean, Kordobako harmonika jotzaile baten bidez jarri ginen harremanetan.

Noiz hasten zarete guztia antolatzen?

Normalean iraila aldera hasten gara zirriborro moduko bat egiten, nor etor daitezkeen pentsatzen. Jaialdian zortzi talde inguruk parte hartzen badute, hasierako zerrenda 20-25 taldekoa izaten da. Aurrekontuak koadratzea da hurrengo pausoa. Azken ukituak urtarila-otsaila aldera ematen dizkiogu.

Zein lan talde dago jaialdi honen atzean?

Hiru lagun aritzen gara: Jokin Ansorena, Anjel Alonso eta hirurok. Gero, udalak laguntzen gaitu, aurrekontuaren zati batekin. Horiez gain, tabernariei ere asko eskertu beharrean gaude.

Hamabost urte hauetan jaialdiaren formatua mantendu duzue?

Ez, gaur egungo formatu honekin 2012an hasi ginen. Lehen, Plaza Berrian, Fronton kafetegian eta Orbelan egiten genuen. 2012an, ordea, leku gehiagotara zabaltzen hasi ginen.

Uste duzu jaialdi honek tolosarrak blues gehiago ezagutzera bultzatu dituela?

Bai, dudarik gabe. Hasiera hartan blues musika zer zen ere ez zekien asko zegoen Tolosa inguruan. Eta gaur egun, jaialdirako aste batzuk falta direnean jendea galdezka hasten da ea ze talde datozen.



NOA VOLL DAMM & THE HELL DRINKERS **ATZO ESKAINI ZUTEN KONTZERTUA**

Ainhua Egiguren (ahotsa), Sergio Villar (gitarra), Gus Gonzalez (bateria) eta Manu Gestidok (baxua) osatzen dute laukotea. Egiguren kantari donostiarrekin indarrak batu dituzte beste hiru musikariek, eta diskoa besapean dutela, helburu baten bila dabilta azken aldian: «zuzenean ahalik eta gehien jotzea, jendeari bluesaren magia helarazteko». Iazko uda azpimarragarria izan zen taldearentzat, izan ere, Hondarribia Blues Festival inauguratzea egokitu zitzaizen eta Burlada Blues Festivalen eta Heineken Jazzaldiko Fnac agertokian ari-zeko ohorea izan zuten.

WAX & BOOGIE RHYTHM QUARTET **GAUR, 19:30EAN, ILARGI TABERNAN**

Ster Wax kantariak eta David Giorcelli blues eta boogie woogie-ko piano jotzaileak indarrak batu dituzte hamasei abestiz osutako proiektu bat aurkezteko. Reginald Vi-lardell bateriarekin eta Oriol Fontanals kontrabaxuarekin, berrogeita hamarreko hamarkadako blues, boogie woogie, rhythm and blues eta jump doinuak jotzen dituzte. Giorcelli piano jotzailea aurrez entzunda duenak, ederki daki nolako talentua duen egiten duen horretan. Ster Wax kantariak, berri, batzuetan leun, baina, indar handia jartzen du bere estiloan.



ARETHA SOUL DIVAS & THE SILVERBACKS **GAUR, 22:30EAN, EUSKAL HERRIA PLAZAN**

Bederatzi musikariz osatutako taldean, lau emakumeren ahotsak dira nagusi. Mayka Edjole, Astrid Jones, Shirley Davis eta Juno dira taldeari ahotsa jartzen dietenak. The Silverbacks-eko kideek musikakutako dute: Edu Martinez (gitarra), Diego Miranda (baxua), Lucas Dupla (teklatura), Aaron Pozon (saxo tenorea) eta Javier Martinez (tronpeteta). Gaur egun dauden soul-kantari onenetariko horiek Aretha Franklin soularen erregina omenduko dute, eta haren arrakastak abestuko dituzte.



MYRIAM SWANSON MEETS J.P. CUMELLAS & M. TALAVERA

**BIHAR, 13:00ETAN, LOPEZ
MENDIZABAL PLAZAN
IGANDEAN, 13:00ETAN,
SOLANA TABERNAN**

Myriam Swanson abeslari katalana «proposamen zirrarakarri» batekin iritsiko da Tolosara. Eskainiko dituen bi kontzertuetan «Europako harmonika jotzailearik onenetakoa» den Joan Pau Cumellasekin eta Miguel Talavera gitarra jotzailearekin batera arituko da, jatorrizko blues eta rhythm&blues uztartuz. Swansonek bere ahotsarekin egiteko gai dena erakutsiko du eta «luxuzko hirukoa» osatuz, Tolosara inguratzen dena liluratzen saiatuko da.



BETTA BLUES BAND BIHAR, 19:00ETAN, SAIKIN TABERNAN

Boskote honek blues eta soul klasikoaren doinuak ekarriko ditu Tolosara. Abeslari eta konposatzaile den Beatriz Berodia, Pablo Sampa (gitarra), Phineas Sanchez (baxua), Tatiana Firminio (pianoa) eta Pino Sambatadorekin (bateria) batera ariko da. Hauen musika entzutean, garai guztietako abeslaririk handien eragina nabarmendu daiteke: besteak beste, Etta James, Bessie Smith eta Big Mama Thorntonena. 2016an sortutako talde honen ezaugarri nagusiak, bere indarra eta publikoarekiko konplizitatea dira; entzulearekin harremana sortzen punta-puntakoak dira.

MITCH KASHMAR BIHAR, 22:30EAN, PLAZA BERRIAN IGANDEAN, 20:00ETAN, TXURRERIAN

Mitch Kashmar harmonika jotzailea, aurtengo izarretako bat izango da Tolosan, Jan Hirto (gitarra), Andreas Bock (bateria) eta Niels von der Leyen (teklatura) lagun dituela. «Gaur egungo musika beltzean zein zurian dagoen musikaririk hunkigarri eta indartsuenetakoa bat da». 80. hamarkadan The Potinax taldearekin hasi, eta 2008an London Royal Albert Hall-eko agertokia partekatu zuen Eric Burdon & War britaniar ospetsuarekin.



Erdi hutsik, erdi beteta...

Xabi Payak bezala (irakurri apirilaren 9ko eta 23ko *Berria*-n argitara eman zituen idatziak, ez zaizue damutuko) euskararen gaian basoa erdi hutsik ikusten dut batzuetan, eta erdi beteta hurrena. Erdian balego neurria, sikiera. Erdiak baleki, eta dakitenen erdiak hitz egingo balu!! Gaitz erdi litzateke, hizkuntza kontuetan beti erdizka edo erdipurdi ibili behar izatera kondenatuta gauden herri honetan. Beti banu, balego eta balitz, beti baldintzapean, Korrika, Euskaraldia eta bestelakoen bidez euskararen sugar hori hauspotzera behartuta, hauspoari eragiteari utzi orduko garra itzaltzeko beldurrez bizitzera ohitu garen herri honetan.

Datuak hor daude: azken Inkesta Soziolinguistikokoaren arabera, euska-

rak 223.000 hiztun irabazi ditu azken mende laurdenean, euskararen eremu osoa kontuan harturik. Ezagutzari dagokionez, 25 urteotan bilakaera positiboa izan da: 1991ko %22,3tik 2016ko %28,4ra igaro da hiztunen kopurua. Eta 16-24 adin tartean, gaur egun gazteen %55,4k daki euskaraz. Gazteen erdiak. Basoaren erdia beteta edo erdia hutsik ote? Erabileran, ordea, hustualdi ederra hartzen du basoak. Eta ez dugu zertan Portugaletera joan. Tolosan bertan, Galtzaundi Euskara Taldeak eta Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak elkarlanean egindako kale neurketaren arabera, euskararen ezagutza %75,7koa izan arren, kaleko erabilera %44,1era jaisten da. Arrakala izugarria da: arrazoi bat edo beste, euskaraz hitz egiteari uzten dio euskaraz dakitenen %30ek.

DBHko ikasleek euskararekin duten atxikimendua ikertu dute Nafarroan. Zehazki, D ereduko hamabi eskoletan egin dizkiete galderak gazteei

–D eredukoetan, bai–, eta gazte gehienek onartzen dute gaztelaniarako joera dutela, balio funtzionala aitortzen diote erdarari, hizkuntza horretan komunikatzeko gaitasun handiagoa dutela, denek ulertzen dutela... Euskarari, berriz, balio sentimentala aitortzen diote: zaharra dela, polita... Iduri du, baserrietako kutxa zahar haietako bat

dela euskara, ederra eta dotorea, bazterrean hautsa hartzen.

Maite dugu euskara, baina erdaraz bizi da gehiengo zabala. Esaterako, euskaldun gehienek ez dute euskal kultura kontsumitzen: ez euskarazko libururik, ez euskarazko muskarik, ezta euskarazko hedabiderik ere. Elkar fundazioaren enkarguz Siadecok kultur kontsumoari buruz oraindik orain eginiko azterketaren arabera, euskarazko kontsumoa ez da euskaldunen erdira ere iristen. Erdia, gainera, urrun geratzen da zenbait esparrutan: bost euskaldunetik batek (%21)

irakurtzen du euskarazko prentsa, eta liburuei dagokien ere, euskaldunon bostetik batek erosten eta irakurtzen ditu euskarazko liburuak. Zergatik erosten dugu euskaldunok gaztelaniazko prentsa? Zergatik ez dute grabatzen eta emititzen «*El Conquis*» ETB1en, euskaraz, aurkezlea eta lehiakide asko eta asko euskaldunak izanik? Dударik gabe, gurean gaztelania da konkistatzailea

eta «*el fin del mundo*», ba...

Antzemango zenuen, irakurle, erdimizez erditua dela zutabe hau: erdiak baleki, eta dakitenen erdiak hitz egingo balu, jarriko bagenu euskara erdian... Hortxe legoke ausaz bide erdia egitearen edo erdibidean geratzearn arteko aldea, erdi etsi egitearen edo erdietsi izanaren artekoa.



RAMON OLASAGASTI
AIESTARAN
 KAZETARIA ETA
 IRAKASLEA

Erdiak baleki, eta dakitenen erdiak hitz egingo balu, jarriko bagenu euskara erdian... Hortxe legoke ausaz bide erdia egitearen edo erdibidean geratzearn arteko aldea, erdi etsi egitearen edo erdietsi izanaren artekoa



Hausnarketa batzuk eta eskaera bat



Kasturteari amaiera ematear gauden honetan Zientziaren Talaian ere iritsi da hausnarketarako garaia. Une honetan ia berrogeita hamar ekarpen pilatu dira Talaiak *ataria.eus*-en duen txokoan eta, azken bost urte hauetan asko izan dira jorratutako gaiak. Beti zientziaren ikuspuntu desberdina eta gertukoa eman nahi izan dizuet, baina, zientziarentzat beharrezkoak diren zehaztasunak galdu gabe.

Zientziaren dibulgazioa dibertigarria da hainbat kasutan. Burura etortzen zaizkit, adibidez, gai eskatologikoak izan dituzten ekarpenak *Kaka gehiago egin behar genuke*, *Tronuko gogoetak* edo *Itsasoko bainuak eta pizalarria*. *Tandem arrisku-tsua*. Gai berezi horiek landuz, itsasoko uraren konposaketa kimikoa, mikroorganismoen hedapena edota geure gorputzaren metabolismoa hizpide izan nituen, baina, nekez –edo, nekezago behintzat– iraku-

rriko zuen inork horietako edozein artikulua izenburuak azken horiek balira, benetan jarritakoen ordez.

Astekariko irakurle zaretenen iritziak jasotzea ez da erraza. Noizean behin iruzkinen bat jasotzen dut webgunean edo norbaitek gairen bat proposatu edo galderaren bat egiten dit, baina, irakurleen iritzia gutxitan jasotzen dut. Horretarako dago webgunean iruzkinak egiteko aukera, eta baita niri mezuak helarazteko aukera. Eskertzekoa da, egia esan. Galderak egitera eta gaiak proposatzera animatzen zaituztet datorren ikasturterako. Bida-

li zuen galderak eta haiek erantzuten saiatuko naiz. Idatzi zuen keaxa eta erantzungo dizuet. Proposatu gaiak eta artikulua modura landuko ditut.

Bitarte horretan, aurreko irailetik hona hizpide izan ditudan gaiak –eta beste batzuk– etorriko dira Zientziaren Talaia. Hausnarketa egiten hasita, ikusi dut gai ohikoena elikadura izan

dela –kafea, haragia edo arrautzak direla– eta, hain zuzen ere, gai horiek aukera ematen dute kimikaz hitz egiteko eguneroko bizitzan erabiltzen ditugun elementuak aitzakia modura hartuta. Musikaz ere aritu naiz eta musikaz ere zientzia baduela erakutsi nahi izan nizuen. Gai xelebreak ere iritsi dira Talaiara eta, gainera, zabaltze handiena izan duten artikulua direla esango nuke.

Kakari buruz martxoan idatzitako artikulua saltsa pixka bat ekarri zuen eta, horri esker, metabolismoari buruzko ideia batzuk azaltzeko aukera izan nuen. Bide batez, jakin ezazue nire gaietarik askok EHUKo Kultura Zientifikoko Katedraren *Zientzia Kaiera* blogean jarraipena dutela eta bertan dagoela informazio zehatzago eta sakonagoa; izan ere, sarri askotan zaila da zientzia-gai sakon bati heltzea orrialde batek eskaintzen duen lekuan. Alabaina, nire bigarren etxean den *Zientzia Kaieran* sakontasun handiagoko artikulua aurkituko dituzue, baina, bertakoei patxada gehiago eskaintzen dute.

Ekaineko *Konposta gaitzen!* artikulua ere bazuen mamia eta zeresana, beraz, oraintxe hau irakurtzen ari bazara, idatzi iruzkin bat testu horri edo beste edozeini. Zientziaren Talaiak guztiona izan behar du eta askoz ere aberasgarriagoa izango da zuen kezka eta galderak erantzuteko atala bihurtzen badugu. Horrexegatik udako etxerako lan hori jarriko dizuet: pentsa dezala zuetako bakoitzak kezkatzen dion gai bat edo egin nahiko lukeen galdera bat. Abuztuaren amaierarako zientziarentalalaia@gmail.com era bidaltzen dutenentzat, bost puxtarri. Bien bitartean, Talaiak jarraituko du beste hamaika kontu ekartzen eta zientziaren aurpegi aspergarria garbitzen. Gozatu uda eta irailean ikusiko dugu elkar.



JOSU LOPEZ-GAZPIO
KIMIKAN
DOKTOREA ETA
ZIENTZIA
DIBULGATZAILEA

Agenda



HARROTASUN EGUNAK HARTUKO DU TOLOSALDEA

Gaur, Gay, Lesbiana, Transexual, Bisexual, Intersexual eta Queer-en eskubideen Nazioarteko Eguna da, eta eskualdeko hainbat herritan bat egin dute harrotasun egunarekin. Tolosako Udalak LGTBQ+ pertsonen jasaten duten «diskriminazioa» gaitzetsi nahi du, eta «sexu orientazio eta genero identitatearen ondoriozko aurreiritzien aurka duen borrokatzeko konpromisoa» berretsi du. Zerkasua ortzadar koloreekin argizatzeaz gain, besteak beste, gaurtik irailaren 6a bitartean, Ura Iturralde argazkilariaren *Iran Ez-kutua* argazki erakusketa egongo da ikusgai, Gernikako Arbola lorategietan. **TOLOSAKO UDALA**

26

OSTIRALA EKAINAK 28

ASTEASU

SAN PEDRO FESTAK KUADRILLEN EGUNA

11:30. Asteasuko Pilota Eskolako Txapelketako finalak. Eskuz mutilak: Aratz Agirrezabal eta Iker Izagirre; palaz neskak: Naroa Beobide eta Maddi Urkola.

12:00. Kuadrillen triki poteoa musikaz lagunduta.

Ondoren. Ikurrinaren ekitaldia.

14:30. Kuadrillen arteko bazkaria.

16:30. Zezen txikiak eta poneyak.

18:30. Sakatu elektrotxaranga.

22:30. Zezen suzkoa.

Jarraian. Euskorleas Dixie Band, musika kalean.

00:30. Josu Rodriguez DJa plazan.

LEABURU-TXARAMA

SAN PEDRO FESTAK

Suziriak.

16:00. Ginkana gaztetxoentzat.

Ondoren. Txokolate jatea.

21:00. Barrikotea herriko sagardogileen sagardoarekin.

22:30. Oinargi dantza taldearen emanaldia.

Ondoren. Karaokea eta musika erabilera anitzeko lokalean.

URKIZU

SAN PEDRO FESTAK

12:00. Suziriak botaz, festen hasiera.

14:00. Haurren bazkaria.

Ondoren. Jolasak.

21:00. Mus txapelketa.

IKAZTEGIETA

DOKUMENTALA ETA HITZALDIA

18:30. Ekaitz Goikoetxeak zuzendutako *Transformatzen* dokumentala eskainiko dute udaletxe azpiko aretoan. Ondoren, Naizen elkarteak kide batek bere bizipenak izango ditu hizpide.

IBARRA

22:00. Ibarako V. Mus Txapelketa Herrikoa, Zubiaurre tabernan.

TOLOSA

TOLOSANDBLUES

19:30. Wax & Boogie Rhythm Quartet, Ilargi tabernan. **22:30.** Aretha Soul Divas & The Silverbacks, Euskal Herria plazan.

TOLOSALDEA

AZKEN OSTIRALA

Ohiko herri eta orduetan elkarretaratzeak

egingo dituzte euskal preso eta iheslarien eskubideen alde.

LARUNBATA EKAINAK 29

ASTEASU

SAN PEDRO EGUNA

10:00. Txistularien diana.

11:00. Meza nagusia.

Ondoren. Elizmendin: soka-dantza, eta hamaiketakoa.

Ondoren. Asteasuko Pilota Eskolako Txapelketako finalak jokatuko dituzte: eskuz mutilak, aurrebenjaminak: Galder Muxika eta Alain Val; eskuz mutilak, benjaminak: Urko Azurmendi eta Unax Maijoz.

18:00. Kalejira herriko musikariekin, buruhandiekin eta erraldoekin.

19:30. Bonberenea txarangaren musika kalez kale.

21:00. Herri afaria.

Ondoren. Bonberenea txaranga.

00:00. Kontzertuak: Gozategi eta Meliora.

*Gauetako autobus zerbitzua eskainiko dute.

BERASTEGI

10:00. V. Ataria Pilota Txapelketako finalak

Berastegiko Ipuliño pilotalekuan jokatu dira. Zazpi partida izango dira.

IBARRA

11:00. Arroparen kolektibizazioa egingo dute KZgunean, bertara joan beharko da, arropa hartu edo uztera.

LEABURU-TXARAMA

SAN PEDRO FESTAK

11:30. Meza Nagusia.

Jarraian. Hamaiketakoa herritarrentzat.

17:00. Triatloia herriko gazteentzat: bizikleta, korrika eta zaku-karrera.

19:30. Poteo musikatua.

21:00. Herri afaria.

Ondoren. Afalostea girotzeko bingoa.

00:00. Harresi musika taldearen emanaldia. Amaitutakoan, musika goizeko ordu txikiak arte.

04:00. Sokatira parrandazaleen artean.

LIZARTZA

KONTZERTUA

20:00. Hostotsa abesbatzak kontzertua eskainiko du Lizartzako elizan.

TOLOSA

TOLOSA KANTARI

12:00. Kantujira herrikoia egingo dute, Maria Luisa Agirre doktorea kaletik hasita.

TOLOSANDBLUES

13:00. Myriam Swanson Meets J.P. Cumellas & M. Talavera, Lopez Mendizabal plazan.

19:00. Betta Blues Band, Saikin tabernan.

22:30. Mitch Kashmar, Plaza Berrian.

PINTXO POTE SENEGALDARRA

17:00. Pintxo pote senegaldarra egingo dute Berdura plazan, BOOLOO Senegal Gipuzkoa elkarteak antolatuta. Senegalgo janari ezberdinak eta zukuak dastatzeko aukera izango da. Musika Senegalgo Sapali musika taldeak jarriko du.

URKIZU

SAN PEDRO FESTAK

11:00. Meza nagusia.

11:45. Hamaiketakoa, trikitilariz alaituta.

16:30. Ur jolasak.

21:00. Auzo afaria, trikitilarietz alaituta.

UGARTE

HERRI BAZKARIA

14:00. Orain arteko Betizu jatearen orde, herri bazkaria antolatu dute aurten, eta pilotalekuan egingo dute bazkaria

IGANDEA EKAINAK 30

ABALTZISKETA

SAN PEDRO EGUNA

12:30. Meza nagusia.

Ondoren. Hamaiketakoa eta trikitilariak.

Arratsaldean. Berriro trikitia, iluntzera bitarte.

ASTEASU

SAN PEDRO FESTAK

ERRETIRODUNEN EGUNA

11:30. Meza. Ondoren, hamaiketakoa Aizondo Elkartearen.

11:00–11:30. Patata tortilla txapelketa.

12:30. Sagardo dastaketa.

13:00. Herri-kirolak: Aizkolaria: Xabier Orbegozo (Arria V) eta Ugaitz Mugerza. Harri-jasotzaileak: Inaxio Perurena, Inar Urruzuno eta Mikel Lopetegi (Urra).

14:30. Erretiratuaren bazkaria.

Ondoren. Bertsolariak: Telleria eta Lizaso. Trikitilariak: Izer eta Alabier.

18:00. Herriko taldeen arteko herri kirolak.

Jarraian. Trikitia eta pandero eskolaren musika emanaldia.

21:00. Soginaren jaitsiera.

LEABURU-TXARAMA

SAN PEDRO FESTAK

12:00. Txakolin dastatzea pintxo lagunduta.

12:00. Eskulanak haur eta gazteentzat.

18:00. Herri kirolak. Herriko gazteak:

Trontzan: Oihan Arrospide eta Iñaki Agirrezabala, Amañur Arrospide eta Eneko Arrospideren aurka. Korrika: Naroa Arrospide Oier Orbegozoren aurka. Lokotx biltzean: Izaro Ibañez Nora Uriberen aurka. Txingan: Iker Zubia Oier Ugartemendiaren aurka. Aizkoran: Unai Zabala eta Angel Arrospide, Kañamares aita-semeen aurka.

19:30. Festei amaiera emateko, Tio Teronen semeak dantz taldearen emanaldia: *Freshcool*.

TOLOSA

I. TOLOSAKO MOTO ETA KOTXE

KLASIKOEN TOPAKETA

09:00–09:30. Kotxe eta motorren etorrera.

10:30. Irteera Euskal Herria plazaatik.

12:00. Hamaiketakoa Amezketan.

13:30. Plaza bueltan.

14:00. Kotxe eta moto gustukoenari bozketa.

14:30. Bazkaria inguruko taberna edo jatetxeetan.

18:00. Sari banaketa.

18:30. Txaston Dixie band taldearen kontzertua.

TOLOSANDBLUES

13:00. Myriam Swanson Meets J.P.

Cumellas & M. Talaveraren kontzertua, Solana tabernan.

20:00. Mitch Kashmar, Txurrerian.

URKIZU

SAN PEDRO FESTAK

10:30. Sagardo eta patata tortilla lehiaketaren hasiera.

11:30. Sari banaketa eta prestatutako tortillen dastaketa, sagardoarekin.

17:30. Umeen jolasak.

17:30. Bolo eta toka lehiaketa.

18:30. Txokolate jatea.

ASTELEHENA UZTAILAK 1

TOLOSA

BILERA

19:30. Sanjoanak amaitu ondoren, jaien balorazio bilera irekia egingo du udalak, kultur etxean. Nahi duen orok hartu dezake parte. Hori dela eta, herritar guztiak gonbidatuta daude.

ZINEMA



LOS HERMANOS SISTERS

Igandea (19:30).

Astelehena (20:30). Ikuslearen eguna. Jatorrizko bertsioan gaztelerazko azpidatziekin.

Leidor, Tolosa.

Zikloak



IÑAKI ZULAIKA 'POTO'

Aspaldi loratua zen
Aizu San Juan lora
Eguna luzatu da
Ilunetik gora
Dena da poz ta konfeti
Degu azken moda
Bestelakoak ejem!
Hobeto albora
Bizitza gogora
Baretu, aztora
Ona txarragora
Txarra onagora
Konturatzeko dena
Aldatuko da



Doinua

Bretoiarena

**Eta noiz hasi
behar dugu guk
debekuak
debekatzen?**

Debekatzen

Debekatua dugu ezberdin
pentsatzea. De-
bekatua dugu
euskaraz baka-
rrik bizitzea.

Debekatua dugu zakil-
dun neskak izatea. Debe-
katua dugu gutxieneko
zerbitzuengatik greba
egitea. Debekatua dute
ikurrina edo estelada ba-
karrik jartzea udaletako
balkoietan.



AINHOA ELIZONDO
KALEKANTOITIK

Debekatu zuten tabernetan erre-
tzea eta sagardotegi ba-
tzuetan kantatzea. Debe-
katzen dituzten manifik.
Debekatuak izan dira iri-
tziak. Debekatua egon da
abortoa. Debekatuak
daude likidoak hegazki-
neko kontroletan. Debe-
katua dugu duin hiltzea.

Eta noiz hasi behar
dugu guk debekuak debe-
katzen?

KOMIKIA NAIARA DELGADO PEREZ



Inkoherentziak

Ez dut ezer berririk adieraziko bizitza inkoherentziaz beteta dagoela esaten badut. Mundua mundu denetik, mundu honetara sortzen garenetik, inkoherentziekin bizitzen ikasi behar dugu. Haur eskola-tik hasita balore eta jokiera eredugarriak erakutsi ohi dizkigute, buruz ikas-teraino sartzen digute lezioa buruan, zenbaitetan hormetan itsatsi eta kolore biziz apaintzeraino. Badago bat bereziki uni-bertsala dena, guztiok esan izan duguna noiz-bait: «Garrantzitsuena parte hartzea da».

Esaldiak berak emaitzari garrantzia kentzen dio, eta prozesua bera gorai-patu. Bizitzako arlo guztietara ekar daiteke mezu hori, baina, batez ere, kirolean galtzen du zentzu osoa. Kirolean emaitzak ditugulako. Irabazleak eta galtzaileak. Onak eta txarrak. Balio dutenak eta ez dutenak. Esan gabe doa egindako bideari garrantzia emate arren, emaitza dela saria.

Noski, dena ez da zuri ala beltz, eta egoera guztiak ez dira modu berean aztertzeak. Horregatik ez dut uler-

tzen festetako kros herrikoi batean zer demontregatik ateratzen diren punta-ko lasterkariak – euren itxurak eta poseak ez du zalantzarik uzten-, eta ondoren herriko zazpi ero.

Konturatuko zineten, nire herriaz ari naiz, eta neroni eroetako bat. Atsekabea eta amorrua, biak sentitu nituen plaza hurbildu eta panorama ikustean. Ez baitut ulertzen festa giroan antolatutako lasterketa batean zergatik dagoen horrelako parte hartze eskasa. Zer, ez duzula korri egiten? Guk ere apenas. Ez duzula atzean geratu

nahi? Lasai, itxarongo dute, ez dute beste erremediorik. Barregarri gertatzearen beldur zarela? Ziur egoera okerragoetan egon zarela, edo egongo zarela.

Arrazoia, beraz, ditxosozko emaitzan egon daiteke. Oraindik orain, besteen aurrean azken gertatzearen beldurra eta lotsak gailentzen gaitu, jai giroan gaudela ahaztuta. Eta gero harro esango diegu gure umeei garrantzitsuena parte hartzea dela. Ba hori, inkoherentziak.



**OLATZ
PEÑAGARIKANO**
AEK-KO IRAKASLEA

Oraindik orain, besteen aurrean azken gertatzearen beldurra eta lotsak gailentzen gaitu, jai giroan gaudela ahaztuta. Eta gero harro esango diegu gure umeei garrantzitsuena parte hartzea dela.

EGURALDIA



OSTIRALA

Giro beroarekin jarraituko dugu baina termometroak dezente egingo du behera. Egun osoan ipar-osagaiko haizea ibiliko denez tenperatura maximoa balio baxuagoetara jaitxiko da, nahiz eta, oraindik ere bero egiten jarraituko duen.



**IKER
IBARLUZEA**
EGURALDI
MUTILA

Maximoa eguneko erdiko orduetan 30-32 gradu bitartean kokatuko da. Zeruan, goizean eta azken orduetan behe-hodei dezente agertuko da, baina eguneko erdiko orduetan eguzkia eta zeru nahi-

ko urdina izango dira nagusi.

LARUNBATA

Antzeko giroa. Berriz ere egun osoz ipar-haizea ibiliko da eta horrekin termometroa koskatxo bat beherago kokatuko da, eguneko erdiko orduetan 28-30 gradu bitartean joaz goia. Zeruan goiz partean behe-hodei dezente agertuko da, eguneko erdiko orduetan giro eguzkitsua izango da, baina eguna amaitzerako zerua estali egingo da. Hala ere, apenas izango den euririk.

IGANDEA

Beste koskatxo bat behera termometroak. Ipar-haizearen eraginez tenperatura maximoa 27-29 gradu bitartean kokatuko zaigu. Zeruan aldiz, berriz ere goizean goiz behe-hodei dezente agertuko da. Ondoren, eguneko erdiko orduetan, goi-hodei batzuk salbu, giro eguzkitsua izango da. Arratsaldea aurrera joan ahala, berriz ere behe-hodeiak ugarituko dira eta bero-hodei batzuk ere garatuko dira, azken orduetan ekaitzen bat leher litekeenik baztertu gabe.

OSTIRALA
28



IGANDEA
30



LARUNBATA
29



ASTELEHENA
01



IRAGARKI LABURRAK



LANBILA

Biltegi lanak. 34 urteko mutil gaztea almazenen lanak, banaketa edo kamioi txikiarekin lan egiteko prest. CAP eta karretillero karnetak. Lanerako gogoarekin. 618 25 49 60.

• Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu 943 65 56 95 telefono zenbakira, idatzi ataria@ataria.eus helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik.

FARMAZIAK



EKAINAK 28, OSTIRALA TOLOSA

Egunekoa.
Eduene Bengoetxea Aiestaran
Kale Nagusia, 7.
Telefonoa: 943 67 06 48

EKAINAK 29, LARUNBATA TOLOSA

Egunekoa.
Jesus M^a Echeveste Elosegui
Gernikako Arbolako lorategiak, 3
Telefonoa: 943 65 10 40

EKAINAK 30, IGANDEA TOLOSA

Egunekoa.
Ignacio Olarreaga Aramburu
Korreo kalea, 2
Telefonoa: 943 67 01 28.

UZTAILAK 1, ASTELEHENA TOLOSA

Egunekoa.
Cecilia Bronte Posada
Korreo kalea, 20
Telefonoa: 943 67 60 13

**EGUNERO GAUEKO
GUARDIAKO FARMAZIA:**
TOLOSA • Morant, R.
Zabalarreta Lorategiak, 1.
Tel.: 943 67 38 49.

ATARIA IRRATIA



OSTIRALA

09:00. Hamaketakoa. Tolosako albisteak.
10:00. Pasahitza. magazina. Asteasuko plazatik zuzenean saio berezia.
16:00. Zebrabidea. Magazina.
18:00. Goizeko saioen onena.

LARUNBATA

10:00. Trikitia.
16:00. Entzuteko Jaioak. Musika saioa.
17:00. Kokondo. Oskar Tenak gidatutako musika saioa.
18:00. Entzuteko Jaioak. Musika saioa.

IGANDEA

10:00. Asteak utzitako onena.
16:00. Entzuteko Jaioak. Musika saioa.
18:00. Entzuteko Jaioak. Musika saioa.

ASTELEHENA

09:00. Pasahitza magazina. Iker Ibarluzearen eguraldi iragarpena, asteburuko errepasoa, losu litzuetarekin bidaia-ien tarte, eta kale kantoitik Aitor Mendiluze.
12:00. Entzuteko Jaioak. Musika saioa.
16:00. Zebrabidea. Magazina.
18:00. Goizeko saioen onena.

107.6 fm

www.ataria.eus

28 KANALA



OSTIRALA

13:30. Gaurkoan Tolosaldeak.
16:30. Onein.
17:30. Gaurkoan Tolosaldeak.
21:30. Gaurkoan Tolosaldeak.
22:00. Denbora da poligrafo bakarra.
22:30. 1, 2, 3 Hemen da Miru!
23:30. Gaurkoan Tolosaldeak.



harpidedun izateak badu saria saridunak

1 URDAIBAI BIRD CENTER

Bi lagunentzako bina sarrera

Aranzadi Zientzi Elkartea
Orueta 7, Gautegiz Arteaga
946 25 11 57 birdcenter.org

- Regina Tolosa (Amezketeta)
- Ander Sarasola (Tolosa)

Bi hilabeteko epea saria erabiltzeko. Aurrez deitu.



2 DONOSTIAKO AQUARIUMA

Bi lagunentzako bina sarrera

www.aquariumss.com

Bi hilabeteko epea saria erabiltzeko.

- Ines Aizpurua (Amezketeta)
- Edurne Gastearena (Ibarra)



3 MENDEXA AVENTURA PARK

Bi lagunentzako
bina sarrera

mendexapark.com
688 85 62 83
MENDEXA

- Mario Belauntzaran (Berrobi)
- Andres Vitoria (Tolosa)

Bi hilabeteko epea saria erabiltzeko. Aurrez deitu.



%30_{eko}
deskontua
eguzkitako betaurreko
GUZTIETAN

Gure betaurreko guztiak
bilduma berrietakoak dira



50 € edo gehiagoko PVP-ko eguzkitako
betaurrekoetan aplikatzekoa. Galdetu optikan
kanpainaren ezaugarriak. Ezin da beste
eskaintzekin batu.

R.P.S. 175/15 I.L.G.

San Frantzisko, 23
Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA

MULTIOPTICAS
lehen a zerbitzu optikoetan

www.multiopticasgipuzkoa.com



Audi Teknikaren abangoardian.

Nork itxaron nahi du bihar arte?



Audi Q5, hilean 290 eurotik*

Audi Garaia da, ekainaren 1etik 30era bitarte.

Gauza batzuengatik itxaron egin behar da, baina, Audi Q5 bat hilean 290 euroan*, sekulako rentingarekin eta zerbitzu guztiak barne izateagatik, ez.

Autowag Tolosa

Usabal industrialdea, z/g
20400 Tolosa
Tel. 943 67 35 81

Audi Q5 Advanced 35 TDI quattro 120 kW (163 CV) S tronic. CO₂ igorpenak (g/km): 189-200 (NEDC: 144-146). Kontsumoa (l/100 km): 7,2-7,6.

* Audi Financial Services-en eskaintza, Audi Q5 Advanced 35 TDI quattro 120 kW (163 CV) S tronic batentzat kalkulatuta, 36 hilabete eta 45.000 kilometroko renting kontratu batekin, 7.296 euroko diru sarrera eginez, Volkswagen Renting S.A.ren bidez. Kuotak eta hasierako diru-sarrerak ez dute BEZa barne. Gurpil aldaketa ez dago eskaintzan txertatuta. Audiren Sare Ofizialeko mantentze eta higadura zerbitzu guztiak, bermea (matxura konpontzea), arrisku orotarako frankiziarik gabeko eta bideko laguntzadun aseguruia barne. Beste bertsio eta ekipamendu batzuetarako, egin kontsulta zure Audi Kontzesionario Ofizialean. 2019/06/30era bitarteko eskaintza, stockean dauden unitateentzat. Audi Financial Services Volkswagen Finance S.A. EFC-k komertzializatutako marka bat da. Ikusgai den modeloa ez dagokio eskaintzari.